

# B


BARREN

TOKIKOM



# Tarte bat ilusioari

## ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK



Sound markako burko biskoelastikoa Audiorako edozein aparturekin erabiltzeko balio duen bi bozgorailu ditu. Ez du entzungailurik behar. Odol zirkulazioa hobetzen du. Akaroen kontrako Banbuzko kanpoko azala.

**ESKAITZA**

Neguko izarak: termikoak, flanela edo koralinazkoak. Bi erosita, bigarrena %40ko deskontuarekin (berdinak edo desberdinak izan daitezke)


\* Kantitate txikienari aplikatuko zaio deskontua.

Mahukarik gabeko manta! Gabonetarako opari ezin-hobe!

**20 €** →



Oihana  
Ohe geriatrikoak



KEYTON  
Masajedun besaullak



MIRON

# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!**



**Gabon zoriontsuak!**

**ORDUTEGIA**

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO**  
**TEORIKAKO**  
**IKASTARO**  
**TRINKOAK**

**LEKUALDAKETA**

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

GIZA ESKUBIDEAK. IRTENBIDEA. BAKEA. EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

# U12 BILBORA

*“Negu gorri bi gainean,  
bata naturala, bestea ekarria.  
Elkartasunak eta lanak  
ekarriko ditu Udaberriak”*



2 URTE BERRI ON  
FELIZ AÑO NUEVO

0 HAPPY NEW YEAR  
BONNE ANNÉE

1 GUTES NEUES JAHR  
FELICE ANNO NUOVO

3 圣诞快乐

Tel.: 943 744 040  
www.ils.es  
e-posta: ils@ils.es



## IES ELGOIBAR-ARREITURRE BHI eta MEKA Lanbide Eskola

Milioika urtean zehar  
Euskal Herriaren ama  
jasan behar izan ditu  
hainbat traba, hainbat zama  
diglosiaren biktima  
gogor aurrera doana  
hitzez osatua eta  
sentimentuaren dama  
gure bizitza osoan  
zati handi bat darama  
euskal kimu berrientzat  
opari onena dana  
erabiliz sustatzen da  
eman ahots kordei lana  
eman behar genioke  
berak eman digun dana

Doinua: Habanera  
Egilea: HB (Baboterra 1 D)



Marraziaren egilea OQ (2B)

2012/2013



Elgoibar Arreiturre BHI eta MEKAREN  
izenen Gabon-jai eta Urteberri  
zoriontsuak opa dizkiezuegu.

## Zatoz zu ere, gazte!

Gazte antolakunde berria. Prozesu eraikitzailea. Partehartzailea. Hausnarketa. Aniztasuna. Alternatiba.

Hitz horiek eta beste zenbait erabiliz zehazki deskriba nezake gaur esan nahi dudana orrialde publiko honetara etorritz, baina idazten noan heinean aditu ditzaket jada zue-tako askoren asperdura lamentuak eta hasperen deserosoak. Ez zait bidezkoegia iruditzen hitz horiei egotzi zaien zama astuna, baina erreala da, eta hortaz, aintzat hartu beharrekoa. Horregatik, gaur beste toki batetatik jardun nahi nuke.

Ukaezina da gero eta bakartuago gaudela ustezko eten-gabeko komunikazioaren atzaparretan harrapatuta. Ukaezina da etorkizun beldurgarria edo are beldurgarriagoa besterik ez digutela eskaintzen aukeran. Ukaezina da egunkaria zabaltzea edo telebista piztea sufrikario hutsa bilakatu dela.

Gero eta zinezko irribarre gutxiago ikusten ditugu egunean zehar.

Irailean Zukguako bileretarako lehen deialdia egin genuenetik gai horiek eta beste zenbait erabili ditugu ahotan, lehenik borobil handian, ondoren borobil txikiagotan eta sarri bilera amaitu ostean ere. Gertuagotik ezagutu dugu elkar, pozez deskubritu dugu gauza asko genituela komunean eta interesez aditu dugu konpartitzen ez ditugunak ez konpartitzeko bakoitzak zituen arazoak. Ordura arte

arrotz batzuk besterik ez ginen, espazio berean.

Sortu nahi dugun antolakundeak eta Elgoibarren batu garen taldeak ez dauka datorkigun zaparradari buru egiteko Erantzuna. Bakarra, erabatekoa. Baina beste inork ere ez. Ez delako existitzen. Baditugu, oster, erantzunak: berba, elkartasuna. Eta gaue-tan erasotzen duen hustasunari eta derrigorrezko isiltasunari aurre egiteko prest gaude.

Etzi 16:00etatik aurrera hitzaldi gelako atea zabalik edukiko duzu gazte, hurbiltzea besterik ez da falta.

Danele  
Sarriugarte



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Baditugu erantzunak: berba, elkartasuna. Eta gaue-tan erasotzen duen hustasunari eta derrigorrezko isiltasunari aurre egiteko prest gaude"**



ESKERTZA

**ANTONIA ELUSTONDO ETXANIZ**

*"Upaitza-Goiko"*

2012ko azaroaren 27an hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

**JOSE MARI ARRIZABALAGA URIARTE**

2012ko urtarrilaren 5ean hil zen, 60 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 5, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaiz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale  
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Udal honek ez du balio erantsia eta espekulazioa bereizten; nahita?

Kasualitatea al da HAPOa hauteskundeak pasa berritan onartzea? Beldur dira herritarren gehiengoak kontra dagoelako? Tontoenak ere badaki zer den egin behar ez dena; hots, Udalak egin nahi duena: 1.000 etxe berri egiteko proiektua arkitekto bulego handien eskuetan utzi, proiektu txiki eta jasangarriak egin beharrean. Kritirik ateratzeko, krisira eraman gaituzten errezeptak.

Hainbat poligono berri diseinatu dira, daude-nak husten ari direnean. HAPOa onartzeko aitzakia: etorkizunean egoera ekonomikoak buelta ematen duenerako prestatuta egotea omen da. Definitiboki, Udal honek ez du krisi honen sakontasuna ulertu. Krisi energetikoak ez du utziko lehengora bueltatzen, eta hor bai badaukala Udalak etorkizunera begira jartzeko esparru zabala.

Beste gauza bat litzateke balio erantsia ematea egun dauden etxeei, elbarrientzat, nagusientzat edo *kotxesilentzat* egokitzea, bizikletentzat egokitzea, ekologikoki efizienteak bihurtu berotzen eta hozten ahalik energia gutxien xahutzeko, etab. Balio erantsi honekin ongizate orokor bat lortuko litzateke, eta ekonomia jasangarria sustatu etorkizunerako prestatuaz. Lanpostu gehiago eta kalte gutxiago. HAPO hau kontrako bidean doanez, ez da herritarrentzat diseinatu, beraien laguntzarentzat baizik. Informazio osoa [Elgoibarren.net/okil](http://Elgoibarren.net/okil) beltzen txokoa.

Okil Beltzak ☾

### Atez atekoa

“Atez atekoa kenduko banu herritarrek alkatetzatik kenduko nindukete”, zioen azaro bukaeraren (*Berria* 2012-11-28) Lluís Verdaguerrek. CIU alderdiko alkatea bera, Bartzelonako 6.000 biztanleko Taradell herrian.

Emaitzarik onenak ematen dituen sistema dela ei dio. Eta are esanguratsua, hondakinen kudeaketaren inguruan Gipuzkoan dagoen eztabaida Kataluniatik nola ikusten den galdetuta hona hitzez hitz bere erantzuna: “Egia esan, urrutitik jarraitu dut. Baina politikariei esango nieke alde batera uzteko kolore politikoa, eta egiteko apustu sistema eraginkorrenaren alde. Emaitzak ikusita, argi dago zein den. Frogatua dago. Iruditzen zait zailagoa izango dela liskar politikoa gain-

ditzea, herritarrek atez ateko sistemara moldatzea baino”.

Wikipedian begiratuta ikus daiteke 1987tik CIUk gobernatu duela herri horretan. Beraz esan dezakegu, okertzeko beldur handirik gabe, 6.000 biztanleko Kataluniako herri honetako CIUko botuemaila gehienak atez-ateko zaborrak biltzeko sistemaren alde daudela hasieratik. Adibidez. Baina, jakina, hau ez da Katalunia, Elgoibar Taradell baino “askoz” handiagoa da, eta Mendaro “askoz” txikiagoa. Gainera Katalunian ez du hemen beste euri egiten, hau askoz menditsuagoa da, guk gure bidea daukagu...

Enetz Ezenarro Arriola ☾

### Olentzerok Elgoibarko Herriari

Urtebete pasatu da azkenekoz Elgoibarren zehar ibili nintzenetik. Mendian pasatzen dut denbora gehiena. Han ikusten ditudanekin mintzatzeko naiz, eta haiek kontatzen didatena dakit.

Triste eta kezkatuta ikusi dut jendea: lan falta, soldaten jaitsierak, kaleratzeak, prezioen garestitzeak, murrizketak. Asko eskertzen dut ni natorrerenako argi berezi horiek kalean jartzea, baina aurten ez nuen espero. Zerbait pentsatu beharko duzelakoan nago. Kontatu didate batzuk zuen artean diru asko daukatela, baina ez dakit nongo paradisuan, beste asko oso gaizki pasatzen ari diren bitartean. Bestetik, itxaropentsu ikusi dut jendea. Etxeko sutondoan mendian topatzen ditudanekin solasean jarduten dudanean politikaz hitz egiten didate. Badakit batasunak indarra egiten duela. Eta indar asko beharko dugula Euskal Herria askea eta euskalduna lortzeko.


Badakit asko sufritu dutela batzuk. Baina gauzak konpontzeko borondatea ikusten dut jende askorengan. Zergatik, orduan, presoak hain urrun eduki? Zergatik ez libre laga gaixo larriak daudenak? Zergatik nahi dute bizitza guztian espetxean eduki? Badakit nire iazko buelta eta gero asko elkartu zinetela Bilbon. Nik ere ikasi nuen hitza. Kolosala. Espero dut aurten gehiago elkartuko zaretela, denon laguntza beharko da-eta gauzak lortzeko. Bukatzeko, hilaren 24an elkartuko garela esan nahi dizuet, urtero moduan Kalegoen plazan, 15:30ean. Kantuan eta umore onean pasatuko dugu arratsaldea. Zatozte!

Herrira ☾



Andres  
Alberdi

Gabonak gainean izanda ere, *betiko* kontuak ditiat buruan, Angel. Zein? Honezkero asmatuko huen. Bai, horixe bera! Wert ministro espainolaren azken (eta azkenaurreko) hitzak eta egitasmoak. Eta ezin diat ezkutatu horiek sortzen didaten kezka; are, horiek zenbateraino jartzen nauten sutan.



Anjel  
Ugarteburu

Heuk esan dok, Andres: *betiko* kontuak. Ez jakinak, ausartak eta ahoberoak izan ohi dituk etsairik samurrenak, dena den. Bada gaiztoagorik.

Ez dok harritzekoa gure bizitza osoa hezkuntza-arloan eman dugunok gai honen erabilera traketsak sutan jartzea. Nahikoa dok historiari azaleko errepasso bat egitea, aspaldiko kontuak direla konturatzeko.

Hezkuntzari atxikita, ez dok atzo goizekoa Claudio Moyano izeneko ministro espainiar hark abian jarri eta ehun urte baino gehiago Espainian indarrean egondako legea: 1857tik 1970era arte, alajaina! Lege horrek ez joan euskara aintzat hartzen, debekurako izan ezik. Eta ez uste izan Moyano hori FAES delakoaren aurrekari edo izan zenik. Liberala ei zuan; sasoi hartako iraultzailea.

### “Kataluniarrek euren hizkuntzaz duten atxikimendurik ez joat ikusten”

Historian atzera pauso batzuk eman eta Juan de Mariana izeneko jesuita bat aurkituko dugu (XVI-XVII.mendeak) sasoi hartako agintariekin arazoak izandakoa. Baina honek ere argi jautan Espainian latinaren ondarea eta indarra jasotako gaztelaniak izan behar zuela lehentasuna ez ezik eskusibitate ere. Izan ere, euskara ez zuan hizkuntzaren mailara iristen, gramatkarik ez zuelako. Hura hil eta ehun urte ingurura haren konpainiakide Larramendik *El imposible vencido* euskal gramatika eman joan argitara, ordea. *Ezina, egina*.

Guk ere egiaztatu joagu euskara edozertarako gai dela, baina, baina... esateak izoztuta lagatzen jok bat. Euskal jendea inoiz baino trebatuagoa zagok, baina, arrazoa daukak, Andres; kataluniarrek euren hizkuntzaz duten atxikimendu errealki ez joat gure artean sumatzen. Erratua al nabil?

Latza bota zian duela aste batzuk Katalunia-ko umeak espainiarrezko asmoa zuela ozen asko aldarrikatu zuenean. Ez duk askoz sibilinoago ibili azken asteotan ere, hezkuntzan egin nahi dituen aldaketak tarteko. Zer eta, Madritetik markatuko dizkigutela, *txo*, irakasgai *tronkalak*; eta zer eta, azken urteotan denon adostasunez euskarak gure eskoletan izan duen nabarmentasuna azpikoz hankaz gora bota nahi duela.

Ez diat uste oharkabean dabilenik. Ziok asmo horiek oraindik proiektu baino ez direla, baina bazekiagu ez direla pentsatu gabeak, estrategia baten barruan kokatzekoak baizik. Testeatzen ari duk; guk nola erreakzionatzen dugun ikusi nahi dik, gero azken erabakia hartzeko. PPren birzentralizatzepolitika itsu betikoa, gaztelania ez diren beste hizkuntzei eraso, hezkuntza uniformatzeko entsegua, eskola-autonomia ukatzeko saioa... Lotsa gutxiko identitate-borroka; nazionalista ez omen diren espainolek espainol sentitzen ez diren bi herriren zanpaketa lotsagabea, labor zurrean esanda.

### “Harrituta nagok zein erantzun txikia eragin duten Wertzen hitzek gure artean”

Hori horrela ikusita, gauza batekin nagok harrituta: zein haserre eta erantzun txikia eragin duen auziak euskal herritarren artean. Ez diat aparteko mobilizaziorik sumatu, nahiz gure burujabetzaren aurkako eraso larria izan. Gizarte-erantzun askoz sutuagoa izan duk Katalunian. Zergatik? Guk baino bere-nago sumatzen dutelako beren hizkuntza? Gu baino sentiberago direlako kontu hauetan? Haien inbidiatan nagok azken bolada honetan, Angel.

#### ESKERTZA

## CELIA BARRENECHEA ARCE



2012ko abenduaren 18an hil zen, 77 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.





Aldaz hertz klinikak  
jai zoriontsuak eta

Urte berri on

**2013**

opa dizue

Ola kalea 10

**LASARTE-ORIA**

San Bartolome kalea 22

**ELGOIBAR**

Tel.: 943 366 377





# Alcorta

FORGING GROUP



*Alcortak gabon zoriontsuak opa dizkie elgoibartar guztiei*

# GOKI ERREFORMAK S.L.

O BRAK ETA PROIEKTUAK



Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587  
[goki@gokierreformak.com](mailto:goki@gokierreformak.com)



Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA  
Tel.: 943 765 342 - Faxe: 943 765 216  
[bergara@gokierreformak.es](mailto:bergara@gokierreformak.es)

Fatxadak - Teilatuak - Bainugelak - Sukaldeak  
Igogailuak - Gremioen koordinakuntza

[www.gokierreformak.net](http://www.gokierreformak.net)

**Gabon  
zoriontsuak!**

## Urruzunoko pasabidea erabiltzeko prest dago

Herrigunean ere obretan ari dira



**P**edro Mugurutz eta etorbidea eta Iñiguez Karkizao kalea lotzeko eraiki duten lurrazpiko pasabidea erabiltzeko prest dago. Besteak beste, Iñiguez Karkizao kaleko obretan trazatua berritzea eta inguru horretako trafikoaren joan-etorria arintzea izan dira lanak egitearen arrazoiak. Horri lotuta, trafikoaren norabidea aldatu dute Gabriel Krutzelaegi eta Urruzuno kaleetan. Aurrerantzean beraz, Gabriel Krutzelaegi kaletik Ikastola alderantz joan ahal izango da, baina ez alderantziz. Hau da, Ermuaranbide kaletik Ikastolara igotzea debekatuta dago orain.

### Txankakoako zubia eta Osasun Zentro ingurua

Txankakoako zubiaren irisgarritasuna hobetzeko lanak egiten dihardute egunotan, eta urte amaierarako bukatuko dituzte obrak. Zubiko zoladura berritu eta oinezkoen joan-etorria errazte aldera, dauden bi espaloiak zabaldu egingo dituzte, besteak beste. Eusko Jaurlaritzak irisgarritasuna hobetzeko ematen dituen diru-laguntzei esker egingo dira lan horiek, eta 50.000 euroko kostua izango dute. Ondo bidean, abenduaren 28rako amaituta egongo dira.

Era berean, anbulatorio inguruko bide segurtasuna hobetzeko neurriak hartuko ditu Elgoibarko Udalak. Horretarako, zebra-bide berria egingo dute Bernardo Ezenarro kalean, anbulatorioaren aurrean (ondoko argazkietan). Elgoibarko osasun zentroa eta Azkue (San Roke) auzora igotzeko igogailua batuko ditu zebra-bideak. Horrez gain, irisgarritasuna hobetzeko, anbulatorio aurreko sarrera zein igogailuaren aurrekoa, {zebra bidearen bi muturrak, alegia}, berdinduko dituzte. Igogailuaren aurrean dagoen errepide zati bat ere oinezkoentzako espaloizatera pasako da, autoek aparka ez dezaten loreontziak jarrita dauden zatia, hain zuzen ere.

## Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) onartu du, EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin. 1992. urtetik indarrean zegoen araudia ordezkatuko du plan berriak, eta 10-15 urteetan egongo da indarrean. Hiri Antolamendurako Plan Nagusia udal lurraldea antolatzeko tresna da. Horren bitartez, lurzorua sailkatzen ddute, eta lurzoru mota bakoitzari dagokion araudia zehazten dute. Horren arabera, Plan Nagusi berria jasota dagoenez, 99,5 hektarea izango ditu Elgoibarrek "jarduera ekonomikoetarako". Horri lotuta, industria sektoreak Elgoibarren duen "indarra eta balioa" nabarmendu ditu Etxeberriak, baina, aldi berean, lurzoru industrialen faltagatik hainbat enpresa herritik kanpora joan behar izan direla gaineratu du.

Okil Beltzak taldea kezkatuta agertu da HAPO dela eta. Haien iritziz, Elgoibarko Udalak ez du krisiaren santonatasuna ulertu. EAEko biztanleen %20 pobrezia egoeran daudela kontuan hartuta, eta gehiago izango direla jakinda, ez dute ulertzen norentzako egin duen Udalak hirigintza plana. Okil Beltzak taldekoen iritziz, HAPOa ez dute herritarrengan pentsatuz egin.

## Urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omendu dituzte



2012an urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omendu dituzte jubilatuen biltokian. Pedro Mari Garate eta Luzia Elorza; Pedro Cambero eta Juliana Borreguero; Victor Torralba eta María Consolacion Mediavilla; Fernando Ruiz eta Isabel Guerra de Nova; Jose Antonio Gonzalez eta Mercedes Juez; Brigido Cobos eta Antonia Salas; Enrike Zabala eta Maria Natividad Iriondo; Manuel Salegi eta Amelia Martinez eta Antonio Garcia eta Heliadora Serrano. Lore sorta eta orogarria jaso zituzten bikote guztiek. Ondoren bazkaria egin zuten 80 urtetik gorako herritarrek.

# Bederatzi gazta lehiatuko dira Kalamua elkarteak antolatutako Urteko Gazta Onenaren Txapelketan

Abenduaren 29an izango da lehiaketa, Gabon Zahar feria egunean

**B**ederatzi gaztagile txapelak parte hartuko dute hilaren 29an, Urteko Gazta Onenaren txapelketan, iaz baino bat gehiago. Jarraian dituzue partaideak, eta bakoitzak aurten irabazi dituen lehiaketak: Elgoibarko J.M. Ansola-Mausitxa (Deba, Elgoibar eta Eibar), Gereñuko Hermanos Audikana (Bilbo), Larreako Patxi Lopez de Uralde (Plentzia), Eulateko Ricardo Remiro (Azpeitia, Araia, Uharte-Arakil eta Hondarribi), Zeanuriko Jon Etxebarria (Ordizia, Axpe eta Gernika), Aiako Jose Luis Odriozola (Bergara), Ordiziako Joseba Insausti (Legazpi), Olaberriko Aizpea (Euskal Herriko Txapelketa) eta Ilarduiako La Leze (Agurain). Sari banaketa 13:00ak aldera egingo dute.

## Gabon Zahar feria

Abenduaren 29an izango da aurtengo Gabon Zahar feria, eta goizean goizetik baserriko produktuak dastatu eta erosteko aukera egongo da. Era berean, abereak ere jarriko dituzte, eta artisauen postuak ere egongo dira. Herriko hainbat erakunde eta elkarte txosnak jarriko dituzte, tartean EAJK ere, eta jeltzaileek jakinarazi dute txosnan lortzen duten dirua Caritas elkarteari emango diotela.



Kalegoen, Kalebarren, Lekueder eta Aita Agirre plazan jarriko dituzte postuak.

## Ignacio Pascualen hilketaz akusatutako hiru gizonak 15, 16 eta 22 urtera zigortu dituzte

Urriaren 15ean hasi zen Gipuzkoako Auzitegian Ignacio Pascualen hilketa argitzeko epaiketa, eta 15, 16 eta 22 urteko kartzela zigorrak jarri dizkiete hilketaz akusaturiko hiru gizoni. Horietako bi elgoibartarrak dira. Epaiak frogatutzat ematen du hiru akusatuek beste gizona engainatu zutela, droga trafikoarekin zerikusia zuen ustezko negozio baten aitzakian eraman zutela Elgoibarko enpresa batera, eta bertan hil zutela kolpeka, 2009ko ekainean. Gorpua Madariaga auzoko leize batera eraman zuten hiltzaileek. Bi hilabetez egon zen gorpua han, eta 2009ko abuztuan aurkitu zuten kasualitatez Bartzelonako espeleologo batzuek. Ikerketa abian jarri ostean, hiru gizon atxilotu zituen Ertzaintzak 2009ko abenduan, gizona hiltzea leporatuta tartean bi elgoibartar.

## Aparkalekutan aldaketak egin dituzte

Elgoibarko aparkaleku publiko guztiak berriz ere doakoak izango direla jakinarazi du Elgoibarko Udalak. Orain arte ordaindu egin behar zen Guasseko aparkalekuan ibilgailua lagatzeagatik, baina aurrerantzean, doakoa izango da. Hala ere, TAO sistema mantendu dute eta hiru orduz aparkatu ahal izango da gehienez. Bigarren aldaketa, ondorengoa da: Bernardo Ezenarro eta Sigmako aparkaleku estalian doako TAO sistemak jarri dituztela da. Abenduaren 11tik aurrera, Bernardo Ezenarro kalean eta Sigmako aparkaleku estalian, beraz, ordu eta erdiz aparkatu ahal izango da autoa. Azken lau urteetan 292 aparkaleku berri sortu ditu dituzte.

## Bidezko merkataritza

Bidezko merkataritzaren denda zabalik egongo da Eguberrietan. Abenduaren 20tik 22ra eta 27tik 29ra, eta urtarrilaren 3tik 5era egongo da zabalik, 10:00etatik 13:00etara. Merkatu plazan jarriko dute postua.

## Kalamua guraso elkartearen zozketa

Kalamua guraso elkarteak urdaiazpikoa zozketatu du, eta Alberto Fernandez izan da sariduna. Zorionak!



## Presoen aldeko aldarrikapenak egiteko hainbat ekitaldi antolatu ditu Herrira plataformak Eguberrietarako

Urtarrilaren 12an Bilbon egingo den manifestaziora deitu dituzte herritarrek

**H**errira plataformak presoen egoera salatzeko aldarrikapenak egingo ditu Eguberrietan, eta elgoibartarrei dei egin diete ekitaldi horietan parte hartzera. Astelehenean Elkartasun Olentzero irtengo da Kalegoen plazatik, 15:30ean; hilaren 28an berriz, urteko azken ostiraleko elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan, eta Gabon Zahar feria egunerako giza-katea antolatu dute. 13:00etan hasiko da Kalebarren plazan. Ekitaldi horiek amaitzeko manifestazioa egingo dute Bilbon, urtarrilaren 12an, eta hara joateko autobusa antolatu dute Elgoibartik.

Orain dela urtebete inguru sortu zuten Herrira, euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira ekartzeko helburuarekin. Herri mugimendu irekia eta zabala da, eta helburu honekin bat egiten duten he-



rritar guztiak biltzeko sortu zuten. “Indarrak batzea eta gizartea aktibatzea” dira Herrira mugimenduaren helburuak lortzeko baliabide nagusiak. Urte asko iraun eta sufrimendu asko ekarri duen gatazka atzean utzi, eta bake egoera justu bat eraikitzeko “aukera berriak” zabaldu dituzte Euskal Herrian. Besteak beste,

Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea, gaixotasun larriak dituzten presoak libre uztea, espetxe zigorrak luzatzeari utzi eta automatikoki bizi osoko espetxe zigorra dakarten neurriak bertan behera uztea, eta pertsona gisa dagozkien eskubide guztiak errespetatzea eskatzen dute, besteak beste.

### Mus txapelketa antolatu dute Mendaron biharko

Bigarren urtez jarraian mus txapelketa antolatu dute Mendaron. Aizbeltz tabernan izango da, bihar, 15:30etik aurrera. Bikoteko 20 euro ordaindu behar dira parte hartzeko, eta izenemateetan biltzen den diru guztia saritan emango dute gero. Hala, bikote irabazleak bildutako diruaren %60 jasoko du, bigarren sailkatzen den bikoteak, berriz bildutakoaren %30 jasoko du, eta gainerakoa hirugarren egiten duen bikotearentzat izango da.

### Euskararen Egunaren harira, 11 bizikleta zozketatu ditu DanobatGroupek



Azken urteotan bezala, denborapask prestatu ditu DanobatGroupek, plantak dituen herrietako eskoletako umeentzako eta bazkideen semeentzako. Aurten DanobatGroupek Interneten jarritako hiztegi tekniko bat ezagutzera emanaz eskoletako 1648 haur eta 109 langileren seme-alabek osatu dituzte prestatutako ariketak eta 11 bizikletaren zozketan hartu dute parte.

DanobatGroup kooperatiba taldea erreminta makina sektoreko hainbat enpresaz osatutako taldea da. Elgoibarren, Bergaran, Osintxun, Ispasterren, Itziarren, Andoainen eta Mallabian dituzte plantak, eta Mondragon korporazioko kide dira. Taldearen ekoizpenaren ehuneko handi bat atzerrian saltzen dutenez, kanpo-harremanak ingelesez edo beste hizkuntzaren batean egiten dituzte. Hala ere, euskara da eguneroko harremanetan nagusiki erabiltzen duten hizkuntza, eta abenduraren 3ko euskararen egunaren bueltan urtero antolatzen dituzte ekitaldiak.



**Txirrindularientzat oso arriskutsua da errepidea Altzolan:** "Altzolan egin dituzten berrikuntzetan, isleta bat jarri dute errepideko bi erreiak banatzeko, eta horren ondorioz, errepidea oso estu gelditu da. Bizikletaz ibiltzen garenontzat, bereziki, ingurune hori oso arriskutsu geratu da. Ohiko arazoez gain, horrelako inbutua jarri izanak oso leku arriskutsu bihurtu du Altzola. Gure ustez badira moldaketa hobeak eta merkeagoak, eta gainera, erabiltzaileentzat arriskurik sortzen ez dutenak".



**Azkenaldian autokarabana asko dago herriko aparkalekuetan:** "Herriko aparkalekuetan autokarabanak edota hondatutako ibilgailuak ikustea ohiko bihurtu da azkenaldian. OTA-TAO dagoen guneeetan badago autoen mugimendua, baina gainerako guneeetan badirudi hilabeteetan egon daitezkeela ibilgailuak mugitu gabe. Kontu hau zaindu egin behar da, herri honetan aparkatzea gero eta zailagoa delako".

**Lekuederreko parkea oso iluna da:** "Lekuederreko parkea oso iluna da, eta neguan goiz iluntzen duenez, umeak ilunpetan jolas-tu behar izaten dute. Musika Eskola zaharreko horman dago argi bakarra, eta ez da nahikoa gune hori argitzatzeko. Gurasoak beldurrez egoten gara, umeek min hartuko dutela pentsatzen dugulako. Farola bat jartzea ez dut uste oso zaila denik, eta benetan eskertuko genuke".



**Kalamua Guraso Elkarteok eskerrak eman nahi dizkiete seme-alaben heziketari buruzko hitzaldian parte hartu zuten gurasoei:** "Mila esker Gure seme-alaben heziketa gizartera begira hitzaldian parte hartu zenuten guztioi. Eskolako familiak eta herriko beste familia batzuk Kultur Etxeko hitzaldi gelan ikustea garrantzitsua izan zen guretzat".



ESKERTZA

## MARIA JUARISTI AROSTEGI

*Zure bihotz handi eta sendoa  
izan da azkena itzaltzen,  
lasai, amona  
bi izar eder daukazu itxaroten.*

Familiakoak



*2012ko abenduaren 6an hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.*



## JENDETZA BATU ZEN MENDARON KONTZETZIO EGUNEAN

**E**uriak ez zuen Kontzetzio Eguneko jai zapuztu Mendaron. Goizean goizetik jende asko batu zen herrian azoka ikusi eta egun horretarako antolatutako ekintza sortaz gozatzeko asmotan. Sagardo dastaketa, herriko dantzari gazteen dantza ikuskizuna, Juan Carlos Diez Sotoren errekor ahalegina, gizon-probak, Kupela taldearekin dantzaldia... egun osoko egitaraua antolatu zuen Mendaroko Udalak. Eguerdira artekoan, gaztetxoek dantza saioak eta Diez Sotok ipurdiarekin intxaurrek apurtzen egindako ahaleginak sortu zuten, beharbada, ikusmin handiena. Eskuak lurrean jarrita, minutuan 76 intxaurrek zituen apurtuta ormaiztegiarrak Guinness errekorerako, eta errekorra ontzerik lortu ez bazuen ere, erakustaldi dotorea eskaini zuen, errekorra berdinduz. Arratsaldean, gizon probak jokatu zituzten, 800 kiloko harriarekin. Mendaroko mutil talde baten estreinaldia izan zen. Berrobiko taldearen kontra lehiatu ziren, Gipuzkoako txapeldunen kontra, eta herrikoak nagusitu ziren, 51 plazarekin. Berrobienek 48 egin zituzten. Argazkiak eta bideoa: [www.ElgoiBARREN.net](http://www.ElgoiBARREN.net) helbidean.



Mendaroko mutilak, ahalegin betean, Jon Saruberen agindutara.



Diez Soto ormaiztegiarra intxaurrek apurtzen.




Izetako idiek tiratutako gurdiak ibili ahal izan ziren herriko umeak.





Jendea erruz ibili zen azokan.



Besteetan baino animalia gehiago izan dira aurten azokan.



Mendaroko gaztetxoek dantza erakustaldiak jende asko batu zuen plazan.

**m mendaro**  
ikastola

Mendaro ikastolako TXOKOLOREN partez, zorionak eta urte berri on!

**BIAK**  
ileapaindegia

San Inazio, 4  
Tel.: 943 742 725  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

*Gabon zoriontsuak!*

**Arriola**  
Aroztegia

Garagartza kalea, 44  
Telf.: 629 258 172  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

*Gabon zoriontsuak!*

# MERKATU PLAZA

*Uste duzuna baino gehiago!*

**MARI**  
*Harategia*



Tel.: 943 743 681

**M. ANGELES**  
*Frutadenda*



Tel.: 605 674 428  
689 989 487  
Etxera ere eramaten dizkizugu erosketak.

**ARANTXA ETA MARIAN**  
*Frutadenda*



Tel.: 943 744 440  
Telefonoz eskatu frutak eta barazkiak  
eta etxera eramango dizkizugu.

**TXILARRE**  
*Ekodenda*



Astelehen arratsaldean ZABALIK!!  
Tel.: 635 008 496  
p.ekologikoak@euskalnet.net  
Salmenta zuzena! Baserritik etxera!  
www.txillarre.es

**ZABALA**  
*Frutadenda*



Tel.: 943 744 295  
Etxera ere saltzen dugu!

**AMAIA**  
*Frutadenda*



Tel.: 635 704 712  
Etxera ere eramaten dizkizugu fruta  
eta barazki freskoak.

*Gabon zoriontsuak denoi!*





**URTEARI ERREPASOA**





Paul Tanui munduko kroseto egungo txapeldunordeak irabazi zuen Juan Mugertza krosa gizonezkoetan. Emakumezkoetan, Yimer Wude Ayalew etiopiarra gailendu zen.

Gasteizko epaitegiak zazpi hilabeteko kartzela zigorra ezarri zien Justo Arriola elgoibartarrari eta beste bost laguni, 2009ko urtarrilaren 17an Urbinan egin-dako AHTren aurkako manifestazioaren osteko gertakariekin lotuta.



Eguberri on,  
Elgoibar  
Ikastolako  
guztionean  
izenean

50 ANIVERSARIO DE  
Elgoibar Ikastola  
1962-2012  
Gaitza Loba

**elgoibar ikastola**  
50  
1962-2012

zuentzat eta zuekin  
eguneroko jardunean  
etorkizuna eraiten

**Zorionak!**

Aluminio-egurrean  
espezializatuak  
Eskaintzako  
prezioak!

**LODOSO LEIHOAK**

Sigmako Industrialdea, Xixillon, 2. pabillioa, 3. zenbakia  
Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12  
www.lodoso.es  
f lodoso@euskalnet.net



Urtarrilak 1: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Botiken Legea indarrean sartu zen. Murtiku, Deba, Mendaro, Soraluze eta Elgoibar-ko botiken gaueko guardiak bateratu eta guardia horiek antolatzeko modu berria jarri zen martxan. Urtarrilaren 1etik aurrera, gauez botika bat dago zabalik egunero Elgoibarren.



Arnaldo Otegiaren egoera salatu eta ezker abertzaleko bozeramaile izandakoa libre lagatzeko eskatu zuten 50 bat lagunek Logroño-ko kartzela aurrean egindako bilkuran. Otegi-  
ren "delitu bakarra" egoera politiko berria abiaraztea izan dela adierazi zuten.

**ZORIONAK eta URTE BERRI ON!**

**Elgoibarko Haurreko Eskola**  
943 742 141

Haurreko Eskolak  
www.haurrekoeskolak.net

Elgoibarko erreminta makinaren historian protagonista izan diren lekukotzak biltzeari ekin zion herritar talde batek. Ekimenak IMHren eta Makina Erremintaren Museoren babesa jaso zuen.



Andonaegi dorretxearen azken aztarnak galdu zien San Frantzisko kalean erretako etxea botatzean. Sutean erabat kiskali ziren etxearen zimenduak, eta hura botatzen hasi zirenean bistaratu ziren Andonaegi dorretxea izandako erakinarren azken aztarnak, tartean harianduzko zutabe bat.

**AARBELOA**  
INMOBILIARIA

**Gabon zoriontsuak!**

San Frantzisko, 34  
Tel.: 943 74 84 27

[www.inmoarbelloa@euskalnet.net](mailto:www.inmoarbelloa@euskalnet.net)

**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel.: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**TELLABIDE** Gabon zoriontsuak!

ITURGINTZA  
Berogailuak  
Gasa  
Aire egokitua  
Erregai likidoak

Azpilgoeta 7 behea - Mendaro  
Tel.: 943 755 082 / 807 755 082  
[Aurgintzate llabide@hotmail.com](mailto:Aurgintzate llabide@hotmail.com)

**karkizano**

San Frantzisko, 14  
Tel.: 943 740 549  
Elgoibar



12.714.216 euroko aurrekontua onartu zuen Elgoibarko Udalak, aurreko urtekoa baino %5 txikiagoa. Mendaroko Udalak, aldiz, aurreko urtekoa baino %1 handiagoa onartu zuen aurrekontua: 2.162.100 eurokoa.

Alberto Fernandez elgoibartarra aukeratu zuen Espainiako mendiko kirol eta eskalada federazioak Espainiako mendi talderako. Hiru urtez egongo da gizonezkoen mendi taldean.



Wibikes erakundeak Euskal Herriko eta Espainiako BTT zentroak aztertu, eta Debarrenakoa hirugarren jarri zuen sailkapen zerrendan. Lehenengo bosten artean Euskal Herriko hiru sartu zituzten: Izkikoa, Debarrenakoa eta Busturialdekoa.

**ZURE ALDE**  
**ZA**  
**ABOKATUAK**

**Gabon zoriontsuak!**

Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.  
 Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

**Itxaki Gil Azpilicueta**      **Ignacio Vazquez Gonzalez**  
 Jausoro Plaza, 3 behea      e-mail: zurealde@telefonica.net  
 Tel.: 943 531 351              20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

**talleres**  
**ZAILDU** S/L

- Makineria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean planoekin egindako lanak.
- Prensas Golti eta mandrinadora AYCEren mantenimendua.

**Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!**

Santa Kiara, 40  
 Tel 943 74 07 60  
 Faxes: 943 74 39 95

**AHOLKULARITZA**

**BIKAIN**  
**ASESORIA**

- ① Zerga-aholkularitza
- ② Lan-aholkularitza
- ③ Kontabilitate aholkularitza

Tel.: 943 744 557  
 Faxa: 943 740 408  
 e-posta: bikain@fonocom.es

Antonio Arrillaga, 4 behea  
 20780 ELGOIBAR



Ainara Ladron aske laga zuten martxoaren 27an, 30.000 euroko bermea ordainarazita. 2010eko urrian atxilotu zuen Espainiako Polizia, Grande Marlaska epaileak agindutako Segiren kontrako operazio batean.



Elgoibarko leku-izenen mapa aurkeztu eta banatu zuen Elgoibarko Udalak. Gotzon Garate beka tarteko egin zuten mapa toponimikoa. Ikerketan 2.300 izen jaso zituzten guztira, baina 800 leku-izeneko mapa osatu zuten azkenean.

2003an Espainiako erregeari irainak egitea leporatuta Otegi ezarri zitzalon zigorra "neurrigabea" zela adierazi zuen iaz Europako Giza Eskubideen Auzitegiak, eta kalte ordainak emateko agindu zion Espainiari. Espainiako Gobernuak Justizia Ministerioak agindua eman zuen Otegi kalte-ordaina ordaintzeko.




**NAVA**  
INPRIMATEGIA  
Santa Ana, 44 - ☎ 208  
Telf. eta Faxe: 943 744 451  
E-mail: nava@euskalnet.net  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*Gabon zoriontsuak!*



Tel.: 943 741 011

**URTE BERRI ON!**

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**


**Zatoz informazio eske!**



Txankakoako zubiaren gaineko Ecce Homo Salbatorea bere lekura bueltatu zuten, zaharberritu ostean. 2011ko irailan eraman zuten zaharberritzera eta aurten bukatu dituzte lanak. Marina del Reyk egin zituen euskulturaren berritze lanak.



Mekatar xake taldeak Lehenengo Mailara igotzea lortu zuen. Hamar urte egin zituen taldeak Bigarren Mailan.



**Gabon zoriontsuak!**

**EGUR-LABEAN EGINDAKO  
ARTISAU-OGIA,  
KONTSERBAK ETA  
ARDOAK.**

San Bartolome 26  
Tel.: 680 724 060

Egile Corporation XXI enpresako presidente Eduardo Junkera eta enpresa horretako garapen Teknologikorako zuzendari Alfonso Urzainki urteko enpresaburu izendatu zituen Gipuzkoako Merkataritza Ganberak. Alcorta enpresa ere nabarmendu zuten, Nazioartekotasun Sariarekin.



EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren agindua beteaz, Espainiako bandera jarri zuten apirilaren 11n Elgoibarko udaletxean, ibai alderako leiho batean. Espainiako, Gipuzkoako, eta Elgoibarko banderen eta ikurrinaren artean jarri zuten.

**FONTANERÍA**  
**Ibámar**  
**ITURGINTZA**

Bernardo Ezenarro kalea, 2 behea  
 Erakusketa/Faxa: 943 531 847  
 Floren Cld: 647 463 436  
 E-posta: [ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)

*Urte berri on!*



BEROGAILUA ● GASA ● GASOILA ● AIRE EGOKITUA ● ALTZARIAK  
 MANPARAK ● OSAGIAK ● GREMIOEN KORDINAZIOA ● ERREFORMAK





# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Lelhoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrot

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 · Mendaro  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04





Victor Zubiaurre dultzaineroa omendu zuten Biasterin, Gaiteroen Egunean. 2011ko abenduaren 20an hil zen Elgoibarko dultzaineroa, eta haren emazteak jaso zituen oroigarriak.



Auzitegi Gorenak hamarretik sei urte eta erdira jaitsi zuen Amaldo Otegi jarritako kartzela zigorra, baina ez zuen erugabetu. Otegiaren aldeko herri plataformak epaiaren "bidegabea" salatzen manifestazioa eta elkarretaratzea deitu zituen.

Erreminta Makinaren bi urtean behingo azoka egin zuten Barakaldoko BEC erakustazokan, eta Elgoibarko enpresak ere han izan ziren euren produktu berrizailenak erakusten. Horrez gain, Danobatek erreminta makinari buruzko hiztegia aurkeztu zuen.



**HARATEGIX-URDATEGIX**

ELSKAL OKELA

**ZIARDA**

KALITATEA

**BASERRIKO KALITATEA**

Errosario Kalea, 10 • Tel.: 943 74 05 54 • 20870 ELGOIBAR

**Gabon zoriontsuak!**

**AUTOCARES REVERT**

**Gabon zoriontsuak!**

JUAN 615 748 178  
NEME 607 298 037  
ANDRES 615 748 169  
VICENTE 607 497 343

P. Muguruza, 29 - 5º A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa  
Tel.: 943 741 853 - Fax 943 531 386

**CORDON VILARCHAO**

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak ezartzea  
Lantekua: egut, aluminio, PVC  
Pisua orokorra

San Roke, 7 behe  
Pel. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 748 678

GRUP  
VILARCHAO

**USATORRE**

**GABON ZORIONTSUAK ICARO!**

Taberna

San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99



Kopa txapelketa irabazi zuen CD Elgoibarko emakumeen taldeak, azken jardunaldian Urola taldeari 1-0 irabazita. Hainbat urteren ostean, iazko denboraldirako sortu zuten berriro emakumezkoen taldea, eta hasierako hilabeteak "gogorrak" izan baziren ere, denboraldiko bigarren zatia "borobila" egin zutela adierazi zuen Oihana Chico entrenatzaileak.



Gabi jatetxea saskibalo taldea Gipuzkoako bigarren mailara igo zen. Liga txapelketako hogei partidetatik hamazazpi irabazi eta hiru galduta, bigarren lekuan sailkatu ziren elgoibartarrak.



Alcorta senior mutilen taldeak lehen nazional mailara igotzea lortu zuen. Elgoibarren jokatu zuten igoera fasea, eta Olaizaga kiroldegia jendez gainezka egon zen asteburu osoan. Lehenengo bi partidak berdindu ostean, hirugarrena irabazi egin zuten, eta emaitza horri esker lortu zuten mailaz igotzea.

**Maria Urizar**

- Ilepaindegia  
- Solariuma

Gabon zoriontsuak!

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.  
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar  
mariaileapaindegia@hotmail.com

Mausitxa

Artzakeren gazta

Urte berri on!

Mausitxa baserria,  
San Antolin auzoa  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 626 957 900

DOÑA MERCEDES

OBRADOREA

DOÑA MERCEDES

San Frantzisko, 21  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 742 652  
943 742 137

¡Jai zoriontsuak!

ILEAPAINDEGIA-EDERGINTZA

DONNA

- Manikura/Pedikura
- Masajeak
- Aurpegiko larruazal garbiketa
- Makilajea
- Keratinazko leuntzailea
- Laser diodoa

- Depilazioa argizari beroa eta epelarekin
- Depilazio elektriko
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Durtxadun solariuma

Pedro Muguruza etorbidea, 13 - Elgoibar - Tel.: 943 744 388



1990etik 2010era egindako lana jaso eta baloratu zuen Elgoibar-ko Izarrak. 43 lagun eta hamazazpi elkarte-erakunderen iritzia eta ekarpenekin osatu zuen dokumentua.



Eduardo Arrietak hartu zuen Migel Martin Molinsek lagatako CD Elgoibarko presidente kargua. Klubaren helburuak Haundi hirugarren mailan mantentzea eta herriko jokalariei lekua egitea izango zirela azaldu zuen zuzendaritza berriak.



Evaristo Valdes gauduzalea omendu zuten Elgoibarko Trinitate jaietan, hainbat urtetan feriarri egindako ekarpenagatik.



36ko Gerrako gudariei omenaldia egin zieten Zirardamendin. Francoren kontra borrokatu zuten lau gudariaren gorpuzkinak atera zituzten lur azalera, Bitorio Agotek eta Felix Etxeberriak emandako argibideei esker.

# LEIGAR

ELEKTRAGAILUAK

MANU LEIZABE LOYOLA

GABON ZORIONTSUAK  
ETA URTE BERRI ON!

TB · BIDEOA · HI-FI · DVD

Salmenta eta zerbitzu teknikoak

Erosario, 8 - Tel. 943 74 00 54



Elgoibar Ikastolak 50 urte bete ditu 2012an, eta ekainaren 9an egin zuten ospakizun nagusia.



King-Kong tabernak irabazi zuen Elgoibarko pintxo lehiaketa, eta Viento Sur gastrotekak jaso zuen herritarren saria.



Sei kopa lortuta amaitu zuen eskubaloi denboraldia Sanlok. Pneumax, Lauko, IMH, Astigarra-ga eta Tecnifuelle taldeek Gipuzkoako kopa irabazi zuten nork bere mailan, eta horrez gain, Tecnifuellek Euskadiko kopa ere eskuratu zuen.



Iñigo Larizek errekorra ezarri zuen Nahaste Boraste proban, 18:01 denborarekin. Korrikalari elgoibartarrak bi segundotan hobetu zuen bere denborarik onena.

**PAGOERROTA**  
iturgintza




- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)  
Tel.: 943 756 044 - Faxa: 943 756 037 - Sakelekoa: 659 334 323  
www.pagoerrotaiturgintza.com - pagoerrotai@pagoerrotaiturgintza.com

**TANTAKA**  
TABERNA

**ENTZALADAK  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK  
RAZIOAK**

*Urte berri on!*

Aita Agirre, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 030 736



Mikel Olaizolak hirugarren egin zuen Plazatik GazteXera bertso txapelketan, Eneko Beretxinaga soraluzearrekin batera.



Garia erein zuten Ibarrenea baserrian, eta uztailean batu zuten uzta.

Doimak enpresak sekula egin zuen artezteko makinari handiena egin zuen, Alemanian saltzeko. Hemeretzi metro luze eta lau metro zabal ditu, eta 80 tona pisatzen ditu.




**PNEUMAX**, S.A.

AUTOMATIZAZIO  
NEUMATIKORAKO  
OSAGIAK

Olaso, 15, Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR  
Teléfono: 943 74 41 44 - 943 74 41 74  
Telefax: 943 74 40 76  
E-Mail: [pneumax@pneumax.es](mailto:pneumax@pneumax.es)  
Web: [www.pneumax.es](http://www.pneumax.es)



*Gabon zoriontsuak  
herritar guztioi!*





Argentinako eta Kurdistango bi dantza taldek hartu zuten parte Nazioarteko Folklore jaialdian, Elgoibarko Haritz dantza taldearekin batera.



Berrikuntzekin ospatu zituzten Santana jaiak Mendaron. Jaietako hasiera emateko Katasorgina aurkeztu zuten, eta Gazteen Egunean goitibehera jaitsiera berreskuratu zuten.



[www.baserrikoa.com](http://www.baserrikoa.com) webgunea aurkeztu zuen Debemenek, baserriko produktuak merkaturatzeko bide laburrak sustatzeko.

# EIZAGUIRRE

## OKINDEGIA

### LANTEGI PROPIOA

- Espezialitateak: ogi-artisanuak, espeltak, kandealak, zerealak, artozkoak,...
- Betiko ogia, arratsaldetan ere beroa

**AURREZ ENKARGATU ITZAZU  
ZURE ERREGE-OPILAK**



**Gabon gauerako eta  
Eguberrirako  
ogi bereziak, enkarguz**



San Frantzisko kalea, 22 behea  
Tel. 943 74 04 88



100 eta 50 urte bete dituzten Alcorta enpresako eta Ikastolako ordezkariak bota zuten txupinazoa udaletxeko balkoitik.



140.000 euroko aurrekontua izan zuten San Bartolome jaiek, iaz baino 5.000 euro gutxiago.



Moby Dolls talde elgoibartarrak estreinako kontzertua eman zuen San Bartolome jailetan.



Mintxeta eta Beiaustegi harri irregularrak alxatu behar izan zituzten harri-jasotzaileek, Baserritarren Egunean.

**PINTXO HOTZAK ETA BEROAK**  
**RABAK,**  
**RAZIOAK,**  
**OGITARTEKOAK**

*Ez dugu izaterik aske haiek gabe...*  
**MAITE ZAITUZTEGU!**

**Foruen plaza, 5**  
**Tel.: 943 257 448**





Gure herri maite hori  
zorionik onena opa diogu!  
Eta okerragorik ez

beste herriei,  
beren lurretan!

*Artze*

Zuri ere, euskaltzale, onena opa dizugu, datorren urtean ere,  
aurten bezala,  
euskaltasunaren hazia zabaltzen segi dezazun.

**Zaindu maite duzun hori!**



**ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA

[www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com)



Danele Sarriugartek irabazi zuen Igartza Saria, *Mamuak* izeneko eleberrri proiektuarekin. Sei mila euroko beka eskuratu zuen Sarriugartek, eta urtebeteko epea eman zioten liburua idazteko. Ondo bidean, Elkar argitaletxeak 2014. urte hasieran kaleratu du. Idazle gazteei bultzada emateko sortu zuten Igartza literatur saria, orain dela hamabost urte.



Urteetan galdutzat izan zuten santua berreskuratu eta prozesioan atera zuten Arriaga auzoan, San Antolin jaietan. Arriagako Santi Espiritus eta Andre Maria Pietatekoa ermita bota zutenetik, askok ez zuten santuaren irudiaren berririk, eta "hunkituta" jaso zuten santuaren itzulera. Altzolan zegoelakoan zeuden auzotarrak, baina, ez, Elgoibarko parrokiaiko ganbaran egon da urte askoan San Antolin santua.

Elgoibarko auzo guztietara ailegatu zen irailean hondakin organikoak biltzeko edukiontzi marroia. Debabarrenako Mankomunitateak zabalduetako kalkuluen arabera, etxean sortzen den zaborren %43 inguru organikoa da, eta behar bezala bereziki, poltsa biodegradagarrietan sartu eta bosgarren edukiontzira sartuz gero, konpost (ongari) bihur daiteke.



## OSASUN GIDA



### OPTIKAK

**65\07**

**IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA**

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Bartolome, 10 - Elgoibar  
Tel: 943 743 734

**183\12**

**UZURI**

- Optometria  
- Kontaktologia  
  
Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

### MASAJISTAK

**22\12**

**VICTORIA IRAEGI**

- Esku terapiak
  - Kiropraxia
  - Dranatzaille linfatikoa
  - Osteopatia
  - Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehia-keta bendajea)

Astelehenetik Ostiralera:  
8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40  
(atzealdea) - Elgoibar  
Tel.: 943 740 770



Elgoibarko Emakumeen Asanbladak deituta, elkarretaratze jendetsua egin zen irailaren 24an Elgoibarren, ustezko bortxaketa kasu bat salatzeko. Adingabea zen salaketa jarri zuen neska, eta zapatu iluntzean egin ziotela eraso salatu zuen. Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Emakumeen Asanbladak emakumeen kontrako eraso guztiak gaitzesteko eskatu zuten.



Nafarroa Arragoa programa aurkeztu zuten herriko hainbat eragilek elkarlanean, irailaren 25ean. Elgoibarko Izarra kultur elkarteak, Elgoibarko Udalak, Morkaikok, Ongarik eta Gazte Asanbladak, Nafarroa hobeto ezagutzeko kultur egitarau zabala prestatu zuten, Nafarroako Konkistaren 500. urteurrenaren harira. Besteak beste, hitzaldiak, *Garxot* pelikularen emanaldia, Iñaki Perurenaren etxera irteera, kantu-bertsu afaria eta Orreagatik Belaguara mendi irteera antolatu zituzten.

Greba eguna deitu zuten irailaren 26rako ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, Hiru, CGT eta CNT sindikatuek, eta haien arabera, "aspaldiko jarraipen handiena" izan zuen. Jaurtaritzaren ustez, ordea, lanuztea ez zen "hain orokorra" izan, eta Confebask patronalaren ustez azken urteotako deialdien artetik jarraipen "eskasena" izan zuen greba deialdiak.



## HORTZ KLINIKAK

**171\12**  
**LEKU EDER**

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053 - [lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

## AUDIOMETRIA

**183\12**  
**UZURI**

- Entzumen protesia **BERRIA!**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

Iñaki Goirizelaia EHUko errektoreak eta Xabier Ortueta IMHko lehendakariak ingeniari-tza dualaren gradua aurkeztu zuten, urriaren 3an. Espainiako sistema dualaren lehen gradua da, eta Ortuetak esandakoaren arabera, IMHrentzat pauso oso garrantzitsua da, eta hezkuntza sistemarentzat jauzi handia. Egun "berezia" eta "historikoa" zela nabarmendu zuten agintari eta hezkuntza alorreko ordezkariak. Txandakako Ingeniaritza Euskal Herriko Unibertsitatearen eskaintzan sartzea lortu ondoren, beste gradu bat eskainiko du IMHk ikasturte honetan: Prozesu eta Produktuen Berrikuntza-Ingeniaritza. Gradu horrek orain arte eskainitako txandakako prestakuntza sistema pedagogikoa mantenduko du, eta unibertsitate sistemaren beharretara egokituko da.



Jesus Bilbao enpresa gizon elgoibartarra saritu zuen Debegesak Gure Balioak sarietan. Gizarte balioen arloan nabarmendu den pertsona edo entitatearen lana aitortu eta saritzen dute sarioran. Besteak beste, eguneroko zailtasunek ematen dutena baino eskola horberik ez dagoela adierazi zuen Jesus Bilbaok BARREni eskainitako elkarriketan.

Markel Bergara futbolariak 2016ra arte luzatu zuen kontratua Realarekin. Kontratua luzatzearekin "pozik" agertu zen erdilarri elgoibartarra, eta futbolari ibilbidea Realean amaitzea "amets bat" izango litzatekeela azaldu zuen. Markel Bergarak 2007an egin zuen debuta Realean.



Euskal Herriko Igoera Bertikalen zirkuitua irabazi zuen Iñigo Larizek. Lehen bi probetan, Azpeitiko Zuzenien eta Txindokiko Kilometro Bertikalean, bigarren egin zuen Larizek; Uharte Arakil-Beriango Kilometro Bertikalean laugarren, eta Anbotoko proban bosgarren. Hiru emaitzarik onenak hartzen dira kontuan eta lehen hiru probetan erakutsitako erregulartasunari esker jantzi zuen txapela Larizek. Urte osoan egindako "ahaleginaren saria" izan zela adierazi zuen berak.

## ASESORIA GOAR

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoría laboral
- Abokatuak

San Bartolome, 2 behea  
Tel: 943 742 674 / 943 740 234  
Faxa: 943 742 129  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
asesoriagoar@euskaltel.net

---

# Txintxo

## INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Tel: 943 742 674

# DEBAPE



## inprimategia

komunikazio grafikoa

### *Gabon zoriotsuak!*

**Liburuxka, publizitate, papergintza  
komertzial, kartel, ezkontza gonbidapen,  
etab..-en diseinu eta inprimaketa.  
Inprimaketa digitala**

SIGMA Industriadeta • Xixilion 2 - 2. solairua, 7. lokala  
Tel: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78  
20870 **ELGOIBAR** (Gipuzkoa)  
debape@debape.com • www.debape.com



Bi urteko lanaren uzta aurkeztu zuen Elgoibarko Udalak urrian: Udak Artxi-boko dokumentu gehienak digitalizatu eta herritarren eskura jarri zituen. Jose Valderrey eibartarraren enpresa arduratu zen digitalizazioaz. Guztira, 25.542 irudi digital egin ditu, bi orritara. Orrialdeak zenbatuz gero, 48.000 orrialde. Digitalizatutako dokumentu zaharrena 1420. urtekoa da, eta pergamino bat da: Elgoibar sortu zeneko Hiri Gutunaren (1346) kopia da.

EAJ alderdiak lortu zituen boto gehien Elgoibarren eta Mendaron, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan (urriak 22). Jeltzaleek 2.328 boto eskuratu zituzten Elgoibarren, botoen %39,29 hain zuzen ere. Mendaron 405 boto eskuratu zituen EAJK. EH Bildu izan zen bigarren indarra bi herrietan, eta PSE-EE izan zen hirugarren alderdi bozkatuena, baina hala ere, alderdi sozialista bera izan zen 2009ko hauteskundeekin alderatuz gero, boto gehien galdu zituena. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko joera berbera errepikatu zen Elgoibarren nahiz Mendaron.

Eibarko Ertzain etxeko agenteek 22 urteko gizonezko bat atxilotu zuten urriaren 1ean Elgoibarren, bikotekideari eraso eta heriotza mehatxuak eginak leporatuta. Ustez, eztabaida bat izan ostean eraso zion gizonezkoak emakumeari, eta hil egingo zuela mehatxu egin zion ondoren. Ustezko eraso horren ostean, Elgoibarko Emakumeen Asanbladak deituta, elkarretaratzea egin zuten Kalegoen plazan. Era berean, Elgoibarko Udalak adierazpen publiko bat egin zuen ustezko eraso salatzeke.



# Aterpe

## TABERNA

- Zure gustura egindako menua
- Oilasko errea (etxera eramango dizugu)
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak

**Urte berri on!**

**Erreserbak  
943 742 595**

# HAIR'S

## ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN  
JUBILATUEN  
EGUNA:

- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €

Hiri Antolamendurako Plan Nagusi berriaren behin betiko txostena onartu zuen Elgoibarko Udalbatzarrak, azaroaren 29ko Osoko Bilkuran. EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin eta Bilduren aurkakoekin onartu zuten. 1992. urtetik indarrean zegoena ordezkatzeko du Plan Nagusi berriak, eta datozen 10-15 urteetan indarrean egongo da.



2013ko tasak %3,4 igotzea erabaki zuen Elgoibarko Udaleko udalbatzaren osoko bilkurak, irailako KPI indizean oinarrituta. Hala ere, tasa batzuetan salbuespenak egitea onartu zuten: zaborren kasuan esaterako. Mendaroko Udalbatzaren osoko bilkurak ere 2013an zergak igotzea erabaki zuen: %3,7. Urteko inflazioa hartu zuten kontuan Mendaron, baina abuztutik abuztura artekoa barik abuztutik irailera artekoa, irailan BEZa igo zuelako Espainiako Gobernuak.



Emugi egitasmoa saritu zuten Udalsarea 21 sarietan. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udalen iraunkortasun proiektu egokienak aintzak hartzen dituzte Udalsarea 21 sariak, eta aurretik, Elgoibarko Udalak sustatutako Emugi egitasmoa saritu dute, Klima Aldaketa izeneko kategorian. Antolatzaileek aditzera eman dakoaren arabera, pertsonen eta salgaien mugikortasun iraunkorra bultzatzeko eginiko ahalegina saritu zuten. Elgoibarko Udalak 2011n jarri zuen martxan Emugi egitasmoa, mugikortasun jasangarria bultzatzeko.



**IHARDUN**  
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



**Makina bereziak**

Albitxuri, 1 • 3. pabiloia, K-L  
Tel.: 943 74 44 66 • Faxe: 943 53 14 74  
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net



Iban Barrenetxearen *El cuento del carpintero* liburua saritu zuten Euskadi Literatur sarietan. Bigarren urtez jarraian irabazi zuen Barrenetxeak Eukadi Literatura saria: iaz, ilustrazio arloko saria jaso zuen, *Bombastica Naturalis* lanagatik. 2012ko Euskadi Sarietan, berriz, gaztelaniazko haur eta gazte literaturakoa jaso zuen, *El cuento del carpintero* lanarengatik (A Buen Paso argitaletxearen eskutik argitaratu du: [www.abuenpaso.com](http://www.abuenpaso.com)).



Hamabi tabernak hartu zuten parte Elgoibarko estreinako pintxo poteo erotikoa. Oihartzun handia izan zuen egitasmoak eta antolatzaileek tabernetatik haratago eraman zuten. Hala, herriko hainbat establezimenduk ere parte hartu zuten, sexua, umorea, ardoa eta janaria uzartzeko ekimenean. Erotismoak hartu zuen Elgoibar lau egunez.



Beheko suaren epelean hartu zituen BARRENeko kazetariak Pello Rubiok Txillarren, urteetan Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramailea eta Jesus Eiguren PSE-EEko presidentea batu ziren egurrezko mahaiaren bueltan. Otegi zein Eiguren "prozesuari emandako gizonak" zirela adierazi zuen Pello Rubiok, gai honen inguruan eskaini zuen estreinako elkarrizketan.



**XAGUA**

[www.xaguaclub.com](http://www.xaguaclub.com)

San Frantzisko, 25 behea

**URTE**

**BEBBI**

**ON!**

Arkaitz Egaña Espainiako Ehiza Xehe Txapelketa irabazi zuen. Espainiako 21 ehiztaririk onenak lehiatu ziren Castillejo de Robledo (Soria) jokatu zen txapelketan, eta Arkaitz Egaña eta "Lagun" txakurra izan ziren guztietan onenak. Espainiako Ehiza Xehe txapelketa irabazi duen bigarren euskalduna da Egaña. Lehenengoak, Julian Larreak, 1968an lortu zuen garaipena, Espainiako txapelketa jokatu zen estreinako aldian, hain zuzen ere.



Mendaro dantzan jarri zuen euskararen aldeko flashmob-ak. Mendaroko Udalak eta Euskara Taldeak antolatuta, Euskaraz bizi nahi dut 'flashmob'-a grabatu zuten Mendaron, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Arrakasta izan zuen deialdiak eta herriko plaza bete zuten mendarorrek. Esne Beltza taldearen *Nahi dut* abestiarentzako prestatutako koreografia dantzatu zuten aldarrikapena eta jaia uztartzeko ekitaldira batu ziren mendarorrek.



Hiru lagun, tartean bi elgoibartar, epaitu zituzten Madariagako leize batean hilda aurkitu zuten Ignacio Pascualen kasua argitzeko epaiketan, eta Gipuzkoako Auzitegiko epaileak 15, 16 eta 22 urteko kartzela zigorrak ezarri zizkien. Elgoibarko enpresa batean hil zuten Pascual, eta leizera bota zuten gero haren gorpua.



**MILAR**

**Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!**

Ubitarte, 11  
Tel.: 943 741 487  
bire@milar.es

**BIRE**



Azaroan...

**JAIOTAKOAK**



**Malen Gorroño Leibar**  
Urriak 6  
Igor eta Leire



**Sara Gallastegi Loiola**  
Azaroak 27  
Joseba eta Dorleta



**Unai Rodríguez Torres**  
Azaroak 13  
Sergio eta Susana



**Laida Soto Bereziartua**  
Azaroak 2  
David eta Ana



**Moussa Thiare**  
Azaroak 20  
Mamadou eta Amy



**Unax Carrascosa**  
**Etxeberria** Azaroak 22  
Santi eta Ane

**Lea Barrutia Cristobal**  
Azaroak 19  
Ander eta Oihana

**Paule Elgoro-Iribe Medi-  
na** Azaroak 19  
Mikel eta Oihana

**Maram Karmaoliu**  
Azaroak 23  
Mohamed eta Fatima

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRENEKO** erredakziora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik Elgoibarko Izarrako bazkideek **3 euro** ordaindu behar dute eta gainontzekoek **4 euro**.

**HILDAKOAK**

Luis Prado Melon • **81 urte** • Azaroak 1  
 Maria Lejardi Gabilondo • **95 urte** • Azaroak 4  
 Francisco Lobete De La Horra • **89 urte** • Azaroak 7  
 Juan Jose Ondarza Gurrutxaga • **70 urte** • Azaroak 7  
 Jose Martinez Angulo • **65 urte** • Azaroak 8  
 Sabin Beristain Juaristi • **82 urte** • Azaroak 12  
 Agustina Fernandez Merino • **81 urte** • Azaroak 16  
 Leonisa Orodea Perez • **80 urte** • Azaroak 19  
 Pako Arrizabalaga Urbieta • **83 urte** • Azaroak 25  
 Manuel Rementeria Gurrutxaga • **92 urte** • Azaroak 26  
 Antonia Elustondo Etxaniz • **83 urte** • Azaroak 27  
 Bittor Arrieta Etxaniz • **86 urte** • Azaroak 28  
 Maria Albisu Arrizabalaga • **92 urte** • Azaroak 29

**ETXEBERRIA**

Hileta zerbitzua **OSOA** eta **24 ORDUKOA**

**TANATORIOA**



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
 Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
 (Sakelekoa) 635 756 295

X. URTEURRENA

**EDUARDO IRUSTA URBIETA**

2002ko abenduaren 31n hil zen.

*“Neguko hotzak azken hostoan eraman zintuen, baina udaberriko eguzkiak kimu berrietan zakartza urtero gurea den zuhaitza oroitzapenez janztera.”*

Etxekoak



## Erretratu zaharra



**1956**

Aste honetako erretratu zaharra Jose Antonio Osorok ekarri du BARRENERA. 1956ko Gabonetan ateratako argazkia da, abenduaren 24an, hain zuzen ere. Pilar ikastetxearen kanpoaldean aterata dago, jaiotza baten bueltan. Goizetik eguerdira arte ibiltzen ziren kantuan eta eskean, eta batzen zuten dirua ikastetxerako izaten zen. Gogora ditzagun zeintzuk diren mutiko horiek.

**Goian:** Jose Manuel Esnaola eta Migel Angel Garate. **Bigarren ilaran:** Jose Mari Urigoitia, Jesus Mari Barrenetxea, Jose Angel Riaño, Miguel Angel Conde, Ramon Artola, Alberto Epelde (†), Jose Mari Etxaniz eta Guillermo Gorostiza panderoarekin (†). **Beherago:** Javier Gurrutxaga, Ziriako Leizabe+, Eduardo Iribarren eta Migel Angel Galarraga. **Jaiotzaren ezkerrean:** Rufino Eizaguirre, Manuel Zubiaurre, Javier Saez, Manuel Gurrutxaga, Andres Ondarza eta Angel Mari Arriaga. **Jaiotzaren eskuman:** Jose Antonio Osoro, Jose Miguel Etxeberria (†), Pako Gurrutxaga, Anton Zubiaurre eta Ixidor Solupe.



I. URTEURRENA

## RAFAEL ARRIZABALAGA BERABIDE

2011ko abenduaren 23an hil zen, 77 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduak 22, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



# Olentzero eta Mari Domingi astelehen goizean iritsiko dira Elgoibarrera eta Mendarora

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera dianarekin iragarriko dute Elgoibarren

**A**stelehenean iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi gurera. Egun magikoa izango da dudarik gabe astelehena, eta egunari berea emateko dianarekin hasiko dute Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldekoak. Kantuan ibiliko dira kalez kale, eta ondoren, 11:30ean kalejiran irtengo dira Olentzero eta Mari Domingirekin batera. Maalan hasi eta Kalegoen plazaraino joango dira kalejiran. Eguneko unerik hunkigarrienak plazan biziko dira beharbada. Izan ere, 12:30ak eta 14:00ak bitartean haurren gutunak jasoko dituzte Olentzero eta Mari Domingik. Zain egon beharreko denbora arintzeko, gainera, txosna ere jarriko dute Atxutxiamaikakoek, eta han txorizo pintxoak eta txokolate eta txorizo taloak jateko aukera izango da.

## Mendaro

Ameikutz Musika Eskolak antolatzen du Mendaron Olentzero eta Mari Domingiren kalejira. Azpilgoetan hasiko dute aurten kalejira, Mañuskako iturri ondoan, 11:00etan. Handik, Garagartzarantz abiatuko dira, plaza gurutzatu eta txaleten ondotik aurrera, eta Garagartza pasata, Estazio kaletik San Jose alderako bidea hartuko dute gero. Frontoian amaituko dute kalejira, eta han, haurren gutunak jasoko dituzte Olentzerok eta Mari Domingik. Ondoren, ipuin lehiaketako sariak banatuko dituzte. Eguraldi txarra eginenez gero, ordubete beranduago (12:00etan) irtengo dira kalejiran, leku beretik.



## 2013ko egutegiaren 8.500 ale banatuko ditu Elgoibarko Udalak

Hilaren 12an aurkeztu zuen Elgoibarko Euskara Sailak 2013rako atera duen egutegia. Herritarrek aurkeztutako argazkirik onenekin osatu dute egutegia aurten ere, eta irabazleek 65na euro jaso dituzte. Hauek izan dira irabazleak: Imanol Cerdeira Laserras (urtarrila) Miren Gurutze Ariznabarreta Atxa (otsaila), Eulogio Mancebo Iranzo (martxoa), Manu Sanchez Conde (apirila eta maiatza), Andoni Segundo Armero (ekaina), Eulogio Mancebo Iranzo (uztaila), Izaskun Estibaritz Astarloo (abuztua), Cristina Lopez Gonzalez (iraila), Aitor Zabala Iriondo (urria), Arkaitz Mujika Urain (azaroa) eta Andoni Segundo Armero (abendua). Elgoibarko gizarte bizitza izan da aurtengo gaia, eta 34 lagunek parte hartu dute lehiaketan. Guztira, 148 argazki aurkeztu dituzte, iaz baino 58 gehiago.



Udalak 8.500 ale banatuko ditu guztira. Horietako 6.000 egutegi txikiak izango dira, eta buzoian jasoko dituzte herritarrek. Gainerakoak egutegi handiak izango dira, eta elkarte, eskola, euskaltegi eta abarretan banatuko ditu

Elgoibarko Udalak. Horretaz gain, 2013 urteko egutegi handiak edo txikiak lortu nahi dituzten herritarrek Kultur Etxean eta Arreta Bulegoan izango dituzte eskura. Egutegia Elgoibarko Original diseinu grafiko-etxeak egin du.

## Elgoibarko parroko izandako Karlos Agirre zenaren anaiak piztu du jaiotza

Arnedo ahizpek irabazi dute jaiotza lehiaketa



*Eszerreko argazkian, jaiotza mekanikoko aurtengo berrikuntzetako bat. Eskubikoan, Eider eta Goizeder Arnedo ahizpak, jaiotza lehiaketako irabazleak.*

**A**tzo inauguratu zuten jaiotza mekanikoa eta urtarilaren 17ra arte egongo da zabalik. Jaiotza mekanikoa inauguratu zuten urtean Elgoibarko parrokoa zen Karlos Agirre abadearen anaiak piztu du aurtan. Elgojaitzakoek urtero gehitu ohi dute berrikuntzaren bat, eta aurtan, ardoarekin zerikusia duten irudi mugimendudunak gehitu dituzte: mahatsa garraiatzen ari den gurdi bat eta ardoa egiteko mahatsa zapaltzen ari den bikote bat. Era berean, gaztelua zaintzen jarri dituzten bi soldaduak ere berriak dira. Hala ere, bestelako ukitu txiki batzuk ere egin dizkiote jaiotza mekanikoari. Hala, pipa erretzen ari den gizonaren atzean kulunka batean jolasean ari diren bi ume jarri dituzte, eta artaldeetako bat ere berria da. Bitxikeria gisa, erditzen ari den ardia topatu-

ko du begi zorrotzeko ikusleak. Astebarruan 17:30etik 20:30era egongo da zabalik, eta asteburuetan eta jai egunetan, 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.

### Jaiotza lehiaketa

Eider eta Goizeder Arnedo ahizpek irabazi dute aurtan parrokiako katekistek antolatutako ohi duten jaiotzen lehiaketa. Guztira 26 jaiotza aurkeztu dituzte gaztetxoek, iaz baino bederatz gutxiago. Bigarren saria, berriz, Danel eta Nerea Zubizarretak eta Elene eta Ainhua Arnedok jaso zuten. Jaiotza guztiekin erakusketa osatu zuten domekan parrokiako arkupeetan, baina ikusi ez zituenak badu oraindik aukerarik. Izan ere, San Bartolome kalean jarri dituzte ikusgai (Arrieta jantzi-dendaren lokalean).

### Euskarazko Produktuen Katalogoaren 2.000 ale banatu ditu Udalak

Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria kaleratu du Elgoibarko Udalak, Euskal Herriko ehun bat udal eta mankomunitateetako Euskara Zerbitzuekin batera, eta datozen egunetan 2.000 ale banatuko ditu herrian, gehienak herriko ikastetxeen bitartez. Hala ere, euskaltegietan, liburutegian eta jostailu eta liburu dendetan ere lagako dituzte. Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen dituzte katalogoan: musika, DVD filmak, informatika, aldizkariak, liburuak, jostailu eta jokoak, gurasoentzako produktuak. Katalogoa sarean kontsultatzeko bi aukera daude: [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) webgunean edota Elgoibarko Udalaren [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) webgunean.

### Iñigo Ugartebururen kontzertua antolatu du Sinuosek domekarako

Iñigo Ugarteburuk kontzertua eskainiko du domekan, 19:00etan, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. Cafe Teatroren errautsetatik dator Iñigo Ugarteburu, Ingalaterran beste hamabost musikariren laguntzarekin grabatutako disko honekin (<http://inigougarteburu.bandcamp.com/>). Sinuosek antolatu du kontzertua, eta sarrerak hiru euroan jarriko dituzte salgai.

## Urtarilaren 5ean iritsiko dira Errege Magoak

Tradizioak agindu legez, urtarilaren 5ean iritsiko dira erregeak Elgoibar eta Mendarora. Elgoibarrera 18:30ean iritsiko dira Santa Klaratik, eta herrian zehar ibiliko dira zaldiz haurrak eta gurasoak agurtzen. Bidean, eten bat egingo dute, San Lazaro egoitzan daudenak bisitatzeko, eta handik plazara itzuliko dira. Behin plazara iritsitakoan Jesus haurtxoa gurtzera joango dira, eta ondoren haurren gutunak jasoko dituzte. Jaiotza biziduna 17:30ean hasiko da.

Mendarora Ospas aldetik iritsiko dira hiru erregeak, zaldiz. Olentzerok egingo duen ibilbide bera egingo dute, eta frontoian bukatuko dute bisita. Han haurren gutunak jaso eta haien galderei erantzuniko diete.



# Abenduaren 27an izango da Elgoibarko Izarraren bertso saioa

Sarrerak salgai daude Elgoibarko Izarraren bulegoan

U nai Iturriaga, Alaia Martin, Andoni Egaña, Xabier Amuriza eta Jon Maia arituko dira bertsoan hilaren 27an, Herriko Antzokian, denak ere Uxue Alberdi elgoibartarraren esanetara. 22:00etan hasiko da bertso saioa. Sarrerak astelehenean jarri zituen salgai Elgoibarko Izarra kultur elkarteak, eta interesatuek gaurko eguna izango dute azkenekoa sarrerak aurrez erosteko (Elgoibarko Izarrako bulegoan: Ubitarte, 4). Gaur saltzen ez direnak egunean bertan salduko dituzte Herriko Antzokiko lehiatilan. Sarrerak hamar euro balio ditu (9 euro bazkide, ikasle, langabetu eta pentsiodunentzako).

## Beinke bertso eskolako enagurra

Elgoibarko Izarrako Beinke bertso-eskolako ikasleek ere hartuko dute parte saioan. Hain zuzen ere, euren izango dute Herriko Antzokira biltzen direnei ongi-etorria egiteko ardura. Bertsoarako plaza faltan, etxeko plazan egingo dute estreinako saioa herriko promesek. Bigarren urtea du Beinke bertso-eskolak. Elgoibar Ikastolan orain hamar urte sortutako Errazu bertso-eskolaren segida da, eta hamabost bat umeko taldeak dihardu bertsoan ikasten. Ane Astigarraga, Amets Izagirre eta Mikel Olaizola dira Beinke eskolaren arduradunak.



## Herriko Antzokia bete egin zen 'Elgoibar Urban Show' ikuskizunean



Elgoibar Urban Show kaleko dantzen ikuskizunak jendetza handia batu zuen Herriko Antzokian joan zen astean. Zirkoa gai hartuta aritu ziren kanpoko zein bertako dantzariak, eta izen handikoekin batera, Dance&Smile Elgoibarko taldeko dantzari gazteak ere aritu ziren. Gogotik egin zuten dantzan eta txalo zaparra handia jaso zuten.

## Kontzertua eskainiko du domekan Elgoibarko Udal Musika Bandak

Urtero legez, Eguberrietako kontzertua eskainiko du Elgoibarko Udal Musika Bandak, igandean, hilaren 23an. 12:30ean hasiko da kontzertua Herriko Antzokian, eta honako hauek izango dira joko dituzten piezak: *Guadix* pasodoblea, *A Christmas Carol Fantasy*, *Txori kantak*, *Birigarroa* eta *Ator-ator*. Gariquito Mendizabal izango da txistu bakarlaria. Ondoren, hilaren 24an, kalejiran irtengo dira bandakoak, 18:30ean. Kalegoen plazatik abiatuko dira, eta San Lazaro egoitza bisitatu ostean, Kalegoen plazara itzuliko dira, bidean gabon kantak joaz.

Urtarrilaren 6an beste kontzertu bat emango dute Herriko Antzokian, 12:30etik aurrera. *Largo*, *Flotte Bursche*, *Highlights from Annie*, *Blue tango*, *Xalbadorren heriotzean* eta *El cumbanchero* joko dituzte.

## Bihar, abenduak 22, Joseba Etxeberria omenduko du C.D. Elgoibarrek Mintxetan

Sarrerak bost euroan jarri dituzte salgai, baina 18 urtez beherakoek doan izango dute

Joseba Etxeberriaren omenez, C.D. Elgoibarko beteranoak Athleticen kontra lehiatuko dira bihar Mintxetan, 16:30etik aurrera. Sarrerak bost euroan jarri dituzte salgai, baina 18 urtez beherakoek doan sartu ahal izango dira. Barixakuan egin zuten biharkoaren aurkezpena, eta ekitaldian Joseba Etxeberria bera ere egon zen, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatearekin eta CD. Elgoibar-ko ordezkariarekin batera. "Partida honekin nire ibilbideko ziklo bat itxiko dut", adierazi zuen Etxeberriak. Bi taldeetan egindako urteengatik, lehenengo zatia Athleticekin jokatu zuela iragarri zuen eta bigarren zatia, Elgoibarrekin.

Maila handiko jokalaria batu dituzte hamaikakorako bi taldeek. Athleticekin honako hauek ariko dira, besteak beste: Julen Guerrero, Fran Yeste, Asier del Horno, Imanol Etxeberria, Urzaiz, Alkorta, Josu Sarriegi, Santi Ezkerro, Patxi Ferreira, Aitor Larrazabal, Oscar Valdes eta Armando edo Tiko. Elgoibarrekin, berriz, beste hauek ariko dira, Iñigo Arriolaren agindutara: Joseba Igartua, Caro, Elkoro, Aitor Gurrutxaga, Iñigo Gurrutxaga, Eneko Etxeberria, Unai Etxebarria, Mariano, Iker Beitia, Xabi Alonso, Iban Quintana, Loren, Txasio, Muxi, Laskurain... Joseba Etxeberria 8 bat urte zituela hasi zen Elgoibarren jokatzeko, eta Realarekin debutatu zuen Espainiako Ligako lehenengo



mailan. Athleticek fitxatu zuen gero, eta 2009-2010. denboraldian erretiroa hartu zuen arte, hamabost denboraldi egin zituen talde zuri-gorrian eta 514 partida jokatu zituen [Jose Anjel Iribar eta Txetxu Rojoren atzetik Athleticen partida gehien jokatu dituen jokalaria da]. Etxeberriarengatik 550.000.000 pezeta (3.300.000 euro) ordaindu zizkion Athleticen Realari, eta diru horren %10 C.D. Elgoibarrentzat izan ziren jokalaria formatzen egindako lanagatik (330.000 euro guztira).

## Espainiako Ehiza Xeha Txapelketa irabazi du Arkaitz Egaña elgoibartarrak Sorian

Espainiako Ehiza Xeha Txapelketa jokatu zen iragan domekan Castillejo de Robledon (Soria). 21 ehiztari lehiatu ziren, eta Arkaitz Egaña eta *Lagun* txakurra izan ziren guztietan onenak. Espainiako Ehiza Xeha txapelketa irabazi duen bigarren euskalduna da Egaña. Lehenengoak, Julian Larreak, 1968an lortu zuen garaipena, Espainiako txapelketa jokatu zen estreinako aldia, hain zuzen ere. Bi eper, erbi bat eta pagauso bat ehizatu zituzten Arkaitz Egañak eta bere txakurrak sei orduko ehizaldian. Guztira, 1.530 puntu zenbatu zituen elgoibartarrak. Jose Manuel Fabregat sailkatu zuen bigarren postuan, bi eper eta erbi bat ehizatuta. 1.380 puntu batu zituen ehiztari valentziarrak.



## Mamo Wolderi eskaini diote Mugertza Kroseko kartela

1963. urtean Azkuek Mamo Wolde atletari egindako argazkia izango da aurtengo Juan Mugertza Kroseko kartela. 70 urte betetzen ditu aurten krosak, eta 50 urte dira lehenengo atleta atzerritarrak parte hartu eta Juan Mugertza Krosa nazioarteko proba bihurtu zela. Wolde bera izan zen Elgoibarren parte hartu zuen aurreneko atzerritarra, eta bera gailendu zen orduko hartan.



# Azer Mirzoevek irabazi du Elgoibarko Xake Txapelketa, laugarren aldiz

Haurretan, Markel Kerexeta eta Haritz Iriondo nagusitu dira



Laugarren urtez Azer Mirzoev xakelari azerbaijandarra nagusitu da Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketan. Bera zen txapelketa irabazteko favorito nagusia ere, besteak beste berak irabazi zituelako azkeneko bi ekinaldiak, 2010 eta 2011ko edizioak, eta berak zuelako txapelketan parte hartu duten hamar xakelarien artean ELO maila altuena [Jardunean dauden xakelarien munduko sailkapenean 420. postuan dago gaur egun Mirzoev].

Hala ere, uste baino gehiago kostatu zaio aurten txapela janztea. Izan ere, azken jardunaldira puntutan berdinduta iritsi ziren Azer Mirzoev eta Cristian Cruz xakelari peruarra. Azkeneko jardunaldiak, nolahi ere, ez zuen aldaketarik ekarri sailkapenean, lehen hiru sailkatuen partidak berdinketan bukatu zirelako. Mirzoeven atzetik, Cruz eta Victor Moskalkenko sailkatu ziren. Ana Matnadzke xakelari georgiarra egin zuen, bestalde, laugarren, azkeneko jardunaldian seigarren postutik laugarrenera igota.

## Kerexeta eta Iriondo garaile, eskolarteko xake txapelketan

Markel Kerexetak irabazi du beste behin ere Elgoibarko Xake Taldeak antolatzen duen xake txapelketa, partida bakar bat galdu gabe (bost garaipen eta berdinketa bat lortu ditu). Paul Fernandez sailkatu da bigarren, lau garaipen eta bi berdinketarekin. Lehen mailan aritu dira biak, 2000. eta 2001. urteetan jaiotako beste dozena bat xakelarekin lehiatzen. Gaztetxoagoen mailan hamahiru xakelarik parte hartu dute, eta Haritz Iriondo gailendu da, lau garaipen eta bi berdinketarekin. Etxeko txikiaren artean xakea sustatzeko asmoz antolatzen du txapelketa Elgoibarko Xake Taldeak. Nazioarteko Xake txapelketan parte hartu duten xakelarien eskutik jaso dituzte sariak gaztetxoek.

## Mendaroko Txirrindulari Elkarteak herriko umeentzako krosa antolatu du biharko

Haur krosa jokatu da bihar Mendaron. Herriko txirrindulari elkarteak antolatu du, kirola ere euskaraz bizi daitekeela gogorarazteko, eta dagoeneko 120 ume baino gehiagok eman dute izena ikastolan. Haur Hezkuntzako azkeneko mailatik hasi eta Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko ume guztiak deitu dituzte korrika egitera. Mendarozabalen jokatu da krosa, 17:00etatik aurrera, eta mailaka arituko dira korrika haurrak. Bukaeran, txutxeak eta freskagarri eta domina bana jasoko dute parte-hartzaileek. Bihar bertan ere eman ahal izango da izena, lasterketa hasi baino orduerdi aurretik, Mendarozabalen.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 2 – Leioa 2  
Elgoibar 5 – Intxaurdi K.E. 0 (Neskak)  
Elgoibar 5 – Zestoa 1 (Erregionala)  
Elgoibar 0 – Urola 1 (Jubenilak)  
Elgoibar 1 – Bergara 2 (Kadete A)  
Elgoibar 4 – Urki C.D. 0 (Kadete B)  
Aretxabaleta 3 – Elgoibar 0 (Ohorezko infantilak)

### ARETO FUTBOLA

Zierbena 3 – Concepto Egile 3 (Bigarren B Maila)

### ESKUBALOIA

Alcorta 27 – Ciudad de Salamanca 28 (Senior mutilak)  
Tecnifuelle 28 – Aiala Zarautz 19 (Senior neskek)  
Bergara KE 26 – Gabaz 33 (Senior mutilak)  
Urola BM 27 – Beristain 41 (Jubenilak mutilak)  
Txarriduna 39 – Egia 29 (Kadete mutilak)  
Pneumax 28 – Amenabar Zarautz 30 (Kad. mutilak)  
Bankoa 40 – Eibar 15 (Infantil mutilak)  
Deca 5 – Aloña Mendi 40 (Infantil mutilak)  
Pulko KE 6 – Murgil eraikuntzak 38 (Infantil neskek)  
Usurbil 13 – Grupo Cometel 30 (Infantil neskek)  
Aiala Zarautz 34 – Lauko 18 (Jubenil neskek)  
Aiala Zarautz 25 – Casa Astigarraga 27 (Kad. nesk.)  
Federopticos Ikus 30 – Urnieta 17 (Kad. neskek)  
Aterpe 21 – Usurbil A 21 (Infantil neskek)  
Aloña Mendi A 9 – Sanlo Neskak A 25 (Esk. eskola)  
Aloña Mendi B 8 – Sanlo Neskak B 27 (Esk. eskola)

### SASKIBALOIA

Arri BKL 61 – Viento Sur 71

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapata, 22

11:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Infantil txiki)  
12:45 Elgoibar – Orioko F.T. (Ohorezko infantilak)  
16:30 Elgoibarko beteteranoak – Athleticen beteteranoak. (Joseba Etxeberriaren omenezko partida)

Domekia, 23

10:00 Elgoibar – Amaik Bat (Futbol Eskola.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapata, 22

10:15 Murgil – Udarregi B (Infantil neskek)  
11:30 Grupo Cometel – Aterpe (Infantil neskek)  
17:00 Gabaz – Talleres Ondo (Senior mutilak)  
19:30 Alcorta – Eibar Eskubaloia (Senior mutilak)

### SASKIBALOIA

Domekia, 23

12:15 Viento Sur – Alde Zaharra B

# BANATU DITUZTE KIROL SARIAK

Eguaztenean banatu zituzten 2012ko kirol federatuaren sariak, eta horri esker, urtean zehar kirol bakoitzean egini-ko lana saritu zuten klubek. Hemezortzi sari banatu zituzten guztira, eta tartean, **BARREN** astekariari ere eman zioten saria. Kirol Patronatuak bi sari banatu zituen, eta horietako bat jaso zuen **BARRENEK**, 20 urte bete dituelako Elgoibar-ko bizitza islatzen eta bereziki kirolari urte guzti hauetan emandako garrantziarengatik. Sar banaketaren aurretik, txirringularitzari buruzko mahaingurua egin zuten. Jarraian dituzue ekitaldiko argazkiak.



Txirringularitzari buruzko mahaingurua.



Judoa: Olaia Garcia Abad.



Mendizaletasuna: Iñigo Lariz.



Eskubaloia: Sanloko zaleak. Eñaut Izagirrek jaso zuen saria.



Wing Tsun: Jose Agustin Marchan.




Atletismoa: Pedro Cardaba.



Txirringularitza: Javier Agirrebeña "Kirru".



Futbola: Juan Martin Molins.



Triatloia: Javier Fernandez De La Lama





Saskibaloia: Ion Perez-Cortes.



Igeriketa: Txema Rodriguez.



Areto futbola: David Garrido.



Ehiza: Arkaitz Egaña "Mintxeta".



Tenisa: Fernando Garcia.



Pilota: Kepa Arrizabalaga.



Xakea: Andres Gabilondo.



Urpekaritza: Asier Etxezarraga.



Eskola kirola: Manolo Esnaola "Muxillo".



Kirol kazetaritza: BARREN astekaria..



Saritu guztien erretratua.

# Iturri beretik emari berria



BALENZATEGUI, S.A. - ALZOLA URA  
Bainuetxeko zumardia, 1  
20860 Alzola (Elgoibar) - Gipuzkoa  
Tfno: 943 740 288 - Faxa: 943 743 557  
[alzola@alzola.com](mailto:alzola@alzola.com)

*alzola*  
basque water



**UBITARTE BIZIGUNEA**

**3 LOGELETAKO ETXEBIZITZAK**

Lehen ~~230.000~~ €-tik  
Orain 190.000 €-tik  
Duplex-ak 215.000€-tik

Sukaldeak barne

**Eguberri on!**


Tel.: 943 744 303  
943 812 462

Informazio gehiago:  
San Bartolome, 14 behea  
[www.ubitarte.com](http://www.ubitarte.com)

**ANTZIBAR**  
CONSTRUCCIONES-ERAIKUNTZAK



**Jai zoriontsuak denoi**



# GABILONDO

INMOBILIARIA AGENTZIA  
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola  
Jose M<sup>a</sup> Azpeleta Iturricastillo

**HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA**

SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR - Tel: 943 74 44 67

**AZALEA** Edergintza  
M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua  
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 740 310

**HIDRODEPURAZIOA**  
Organismoaren garbiketa naturala  
GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA  
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizarizkoa) - Mikropigmentazioa

**Tximak**  
ILEAPAINDEGIA  
Kalamua, 2 · Tel: 943 744 357  
**Gabon zoriontsuak!!**

**K.E.Y.**  
hizkuntza akademia  
Trenbide kalea, 19 behea  
Tel: 943 743 044 / 653 825 606  
**Gabon zoriontsuak!!**

**ZAZPI**  
INFORMATIKA  
Bernando Etxebarri, 13 behea  
Tel. / Fax: 943 74 37 87  
E-mail: zazpi@informatika.net  
20870 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)

**BALIATU AUKERA HAU ZURE URTEROKO PROPOSAMEN HORI BETETZEKO**

*urte berri on!*



**ELGOIBARKO  
HERRI ESKOLA**

*Eguberri  
eta urte berri On!*

**LANA**

**ESKAERA**

- Logopedia, Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Premia Bereziko klase partikularak ematen ditut. Irakaslea naiz. ☎ **627 704 124 (Eukene)**
- Emakumea garbiketa lanak egin, umeak zein adinekoak zaindu edo sukaldian laguntzeko prest. ☎ **627 162 936**
- Magisterizan diplomatua naiz eta EGA titulua daukat. Klase partikularak ematen ditut. ☎ **666 329 728**

**ESKAINZA**

- Irakurzalea den euskaldun zaharra behar dut. Euskarazko literaturaz gozatzeaz gain, ozen ederki irakurtzen duena. Astelehenetik barixakura, 13:30etik 14:00etara. ☎ **660 969 679**

**ETXEBIZITZAK**

- Bikote batek pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **659 093 967**
- Etxea alokairuan Santa Ana kalean. Bi logela, egongela, ganbara, igogailua. Altzariekin. ☎ **639 825 085**
- Logela alokatzen dut, etxebizitza erosoan. ☎ **648 210 852**
- Erdigunean 97m2ko duplexa, 85m2ko lorategia eta 15m2ko garaje itxia salgai. Lehen solairuan: sukaldia, komuna eta egongela-jangela handia. Bigarren solairuan: komuna, bi gela armairu enpotratuarekin eta beste gela bat jantzileku eta terrazarekin. 390.000 euro. Beste garaje itxi bat aukeran. ☎ **661 700 433**
- Etxea alokatzen da Elgoibarko erdigunean. Bi logela, egongela, despentsa. Jantzita. Berri samarra. Igogailuarekin. ☎ **943 203 083**

**BESTELAKOAK**

- Kontsumo bajuko berogailuak salgai, erdi prezioan. Tamaina desberdinetakoak. ☎ **658 729 235**
- Gazteentzako lokala alokairuan. ☎ **648 210 852**
- Goiko Errota elkarteak bazkide berriak hartuko lituzke. ☎ **619 574 247 (Felix)**
- Koltxoi babesgarria salgai. Kotoia 100%. Mash markakoa. 160x190cm. Oso merke. ☎ **686 882 162**



**myl precision spindles  
& spindle repair services**

*Zorionak eta Urte Berri On!*

Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 **MENDARO**  
 Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130  
 E-posta: myl@myl.es · http:www.myl.es

**USUA**

*kafetegia*



Tel.: 943 256 028

*Lanbroa*

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 743 811 / 943 740 806



Astelehenetik ostiralera irekita goizeko seiretatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan goizeko zortziretatik aurrera.

**URTE BERRI ON!**



• Azkenean iritsi da eguna! 6 urte! Zorionak familiako guztien partez, eta bereziki, ahizpa Aneren partez.



• Zorionak, **Danel**, bihar 10 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta bereziki Uxueren partez.




• Zorionak, **Igor**, ostegunean 7 urte bete zenituelako. Patxo handi bat familiakoen, eta bereziki, Aioraren partez.



• Ea itzaltzen dituzun 8 kandela hilaren 28an. Zorionak, **Iker!** Milaka muxu, etxekeen partez.



• Zorionak, **Maria Jesus**, abenduaren 25ean 84 urte egingo dituzulako. Ondo pasa, lagunen partez.



• Zorionak, **Mikel**, abenduaren 19an 5 urte egin zenituelako. Muxu bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Mikel**, zure hirugarren urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Oinatz**, atzo 3 urte bete zenituelako. Etxekoen eta bereziki Unaxen partez.




• Dozena erdi urte, mila zorion, **Gares!**



• Zorionak, **Eider**, bihar 14 urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Ahizpa Goizeder eta gurasoen partez



• Zorionak, **June**, abenduaren 15ean 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, etxeeko guztien partez.



• Zorionak, **Markoni**, hilaren 24an urteak beteko dituzulako. Bonbazar! 'Villa Markoni'-ra goazen guztion partez.



• Zorionak, **Irune**, hilaren 29an 7 urte egingo dituzulako. Muxu, etxekeen eta bereziki ahizpa Garazi eta lehengusu Julenen partez.



• Zorionak, **Eider**, ondo pasa dezazula zure urtebetetze egunean. Familiakoen eta bereziki Onintzaren partez.




• Zorionak, **Iker**, lehengo larunbatean 6 urte bete zenituelako. Familiakoen eta gurasoen partez.




• Zorionak, **Iker!** Azkenean iritsi da 10 urte betetzeko eguna! Muxu handi bat, familiakoen eta bereziki Goraneren partez.




• Zorionak, **Oier**, gaur urte bat egin duzulako. Muxuak, amabx, aita-xo eta batez ere anaia Ikerren partez.



• Zorionak, **Adri eta Unai**, abenduaren 20an eta 24an, 22 eta 2 urte egingo dituzuelako. Muxu handi bana, familiakoen partez.



• Zorionak, **Naia eta Nakor**, hilaren 25ean eta 31n urte bat egingo duzuelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Nakor**, abenduaren 31n urte bat egingo duzulako. Familiakoen partez, muxu bat.

## OHARRA



Eskuartearen duzuna izango da 2012ko azken alea. Urtarrilaren 11n jasoko duzue hurrengoa. Ale horretan zerbait publikatu nahi izanez gero, urtarrilaren 9rako ekarri beharko duzue gure bulegora. Urtarrilaren 2tik aurrera zabalik egongo da BARRENEKO erredakzioa.

**BVI**  
bronymec

Metal Ez-Ferrikoak  
Plastiko Teknikoak  
Konpositeak  
Mekanizazio Lanak

www.bronymec.com

ISO 9001  
ISO 14001

BUNGA VERITAS  
Certification

**ZUBACOR S.L.**

Patxi Beitia Arriola

ZUZENDARI GERENTEA

Itzartze kalea, 11  
Tel.: 943 740 844  
Faxa: 943 742 666

50 posta kuba  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
www.zubacor.com  
zubacor@zubacor.com

## 21 barixakua

### *Eguberriak*

17:30 Parrokiako jaiotza  
Elgojaitzak antolatuta,  
Parrokiako lokalean.

### *Musika*

20:00 Musika Eskolako  
Gabonetako kontzertua  
San Bartolome parrokian.

## 22 zapatua

### *Kirola*

17:30 Hour krosa  
Mendarozabal auzoan.

## 23 domeka

### *Musika*

12:30 Musika Bandaren  
Gabonetako kontzertua  
Herriko Antzokian.

## 24 astelehena

### *Eguberriak*

11:00 Olentzeroren kalejira  
Mendaroko Azpilgoeta auzoan.  
11:30 Olentzeroren kalejira  
Atxutxiamaikak antolatuta,  
Maalako parkean hasiko da.

### *Musika*

12:00 Parrokiako abesbatzaren  
kalejira  
Kalegoen plazatik.

### *Musika*

18:30 Musika Bandaren kalejira  
Kalegoen plazatik. San Lazaro  
egoitza ere bisitatuko dute.

## 26 eguaztena

### *Kirola*

22:00 Xake txapelketa  
Zubi Ondo elkartearen. Hilaren  
28an amaituko da.

## 27 eguena

### *Kirolak*

9:30 Eskubaloi txapelketa  
Olaizaga kiroldegian.

### *Bertsolaritza*

22:00 Neguko bertso jaialdia  
Elgoibarko Izarrak antolatuta,  
Herriko Antzokian.

### *Kirola*

9:30 Izotz hockey txapelketa  
Elgoibarko Eskola Kirola  
elkartean antolatuta, Aita Agirre  
plazan.

## 28 barixakua

### *Kirola*

9:30 Izotz hockey txapelketa  
Elgoibarko Eskola Kirola  
elkartean antolatuta, Aita Agirre  
plazan.

## 29 zapatua

### *Eguberriak*

9:00 Gabon Zahar feria  
Kalegoen plazan, Lekuederren  
eta Aita Agirre plazan.

## 5 zapatua

### *Eguberriak*

17:30 Jaiotza biziduna  
Kalegoen plazan.

### *Eguberriak*

18:00 Erregeen kabalgata  
Santa Klara auzotik.  
18:30 Erregeen kabalgata  
Mendaron, Ospas ingurutik.

## 6 domeka

### *Musika*

12:30 Udal Musika Bandaren  
kontzertua  
Herriko Antzokian.

## ZWEA

'En la casa'	'Olentzero eta iratxoen jauntxoa'	'Skyfall'	'Campanilla: El secreto de las hadas'	'7 días en La Habana'	'Operación E'
21, barixakua: 22:15 22, zapatua: 19:00/22:15 23, domeka: 19:00 25, asteartea: 19:00	23, igandea: 16:30	28, barixakua: 22:15 29, zapatua: 19:00/22:15 30, domeka: 19:00	30, igandea: 16:30	3, eguena: 21:30	4, barixakua: 22:15 5, zapatua: 19:00/22:15 6, domeka: 19:00 7, astelehena: 21:30

### OKINDEGIA

23 domeka: **EIZAGIRRE**  
25 martitzena: **Ez dago**  
30 domeka: **FOTERO**  
1 domeka: **Ez dago**  
6 domeka: **IBARRENEA**

#### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza  
(Mendaro)  
Tel: 943 751 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

### BOTIKA ORDUTEGIAK: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

#### GUARDIAK

#### Egunez

9:00 - 22:00

21 Yudego  
22 Zabaleta  
Goizez: Etxeberria

23 Zabaleta  
24 Garitaonandia  
25 Garitaonandia  
26 Fernandez  
27 Etxeberria  
28 Garitaonandia  
29 Yudego  
30 Yudego  
31 Fernandez

#### Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego  
Barrenetxea  
  
Barrenetxea  
Garitaonandia  
Garitaonandia  
Barrenetxea  
Etxeberria  
Garitaonandia  
Yudego  
Yudego  
Yudego

#### Egunez

9:00 - 22:00

1 Fernandez  
2 Ibañez  
3 Garitaonandia  
4 Etxeberria  
5 Barrenetxea  
6 Fernandez  
7 Yudego  
8 Zabaleta  
9 Barrenetxea  
10 Ibañez

#### Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea  
Yudego  
Garitaonandia  
Etxeberria  
Barrenetxea  
Barrenetxea  
Yudego  
Barrenetxea  
Barrenetxea  
Etxeberria

## DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da  
erraza eta leuna;  
hala eta guztiz ere, argituko da  
noizbait bere etorkizuna.  
Hizkuntza dugu herriak duen  
benetako ondasuna;  
Urte Berriak dakarkiola  
geureari osasuna.*

*Eguberri zoriontsu  
eta urte berri on!*



Kalebarren plaza, 2 – 943 742 731  
20870 ELGOIBAR • [elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net](mailto:elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net)

## NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA BARAZKIAK

– 5.000 m<sup>2</sup> babestutako  
barazkigintza produkzioarako  
– 200 m<sup>2</sup> manipulazio  
eta ontziratze  
biltegietarako



*Gabon zoriontsuak!*



*Ekoizpen prozesuan  
energia berriztagarriak  
erabiltzen ditugu*

- Landareen PRODUKZIOA
- Laborantza KONTROLA
- Eskuz eginiko AUKERAKETA
- BANAKETA
- Bertako produktuetan erantzunik GERTUKOENA

# ZELETA

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserrria.com](http://www.zeletabaserrria.com)



**Elgoibarko EAJ-PNVk eta  
EGIk jai zoriontsuak  
opa dizkizue  
elgoibartar guztioi!**

